



Gehigarri berezia

Eraikuntza → 23-50

DONEZTEBE → 20

Roboten inguruko saria lortu du San Miguel ikastetxeak

GOIZUETA → 51

Feri eguna izanen dute azaroaren 25ean

SARA → 60

18 haurrendako tokia duen haurtzaindegia ireki dute

AIZKORA → 62

Ruben Saralegi lehen mailan ariko da

Patxi ASTIBIA OLANO | Leitzako aizkolaria

Arrastoa utzi duten aizkora kolpeak

16 urterekin irabazi zuen bere aurreneko txapelketa Leitzako aizkolaria haundiak, eta jokaturako apustu guztiak irabazita-koa da. Historiako aizkolaririk haundienetarikoa izatera ailegatu zen, baina istripu baten ondorioz, 29 urterekin erretiroa hartu behar izandu zuen. Orain, bere ibilbidea kontatuz, liburua argitaratu du Xibarit argitaletxeak.

ERREPORTAJEA → 4-5

BERA → 63

75 urte bete ditu Eztegara pilotalekuak

Urteurrena gogoan, eskuz binakako pilota txapelketako lehenbiziko partida bertan jokatu da azaroaren 24an.



ELKARRIZKETA → 3

Bere burua artista berantzat duen **Lola Sarrateak** liburua argitaratu du. 49 kontakizunetan belaunaldi baten lanak eta eginalak bildu ditu.

LESAKA → 10-13

Azaroaren 22an eta 23an ospatuko dituzte **Lesakako feriak**.

ZOKKETAK → 72



Txartela egiteko deitu **948 63 54 58** telefonora edo idatzi info@ttipi.eus helbidera.

ARGAZKIA: Joseba URRETAZKAIA



TXIMISTINDAR
INSTALAZIO ELEKTRIKOAK
Andueza e Iriarte, SL

Instalazio Elektrikoak:
Industria, etxebizitzak, komertzioak...

Instalazio automatizatuak eta programatzaileak:
Partner zenbakiak 37050 eta 43139

Proiektu elektrikoak. Kolegiatu zenbakia: 3868

Goi mailako kalitate zerbitzuak:
- MOBOTIX bideozaintza
- SONOS musika

fenienergía

Energia sentitzeko bertze modu bat



Dirua aurreztu nahi duzu?

Zure konfiantzako instalatzailearekin baino hobere, norekin?

Elektrizitate eta Gas Fakturak aztertzen ditugu dirua aurrezteko helburuarekin, **konpromisorik gabe**

Zalain Industrialdea, 42B-4.pab. | T. 948 631 452 | 639 608 034 | 639 125 046 | jmandueza@tximistindar.com | jmiriarte@tximistindar.com

Domotikaren abantailak:

Energiaren kostua murriztea zereginak automatizatuz
Segurtasuna hobetzea
Pertsonen bizi kalitatea hobetzen da
Mantenerako zerbitzuen efizientzia hobetzen da
Kontrola eta egiaztapena
Zerbitzuak urrunetik gestioatzeko aukera





SUKALDE ETA PARETAKO ARMAIRUAK GUK EGITEN DITUGU

KOLTXOIAK ETA OINARRIEKIN PROMOZIOTAN JARRAITZEN DUGU

ALTZARIAK ETA
DEKORAZIOA

AMETS




C/Sastrin 2,3,4 BERA | 948 630 537 | amets@mueblesamets.com | mueblesamets.com

Grabatuak, ilustrazioak eta zeramika aisialdiko zaletasun izan ditu luzaroan Sarrateak. Berrogeita bortz urte zituela, Parisera ikastera joan eta zaletasuna ogibide bilakatu zuen.

Orain, hiruretan hogeita hamahiru urterekin, gaztaroan, euskara ikasten ari zelarik, idatziriko haurtzaroari buruzko kontaketak eta egungo gogoetak bilduz, *Lolita* liburua argitaratu

du. Horrela, 49 kontakizunetan, belaunaldi baten lanak eta eginahalak bilduz, ondorengo-
ei arrotz izanen zaien bizimoduaren lekukotasuna eskaini nahi izan du.

Lola SARRATEA | Arraiozen bizi den almandoztarra

«Gure belaunaldiak Euskal Herria modernizatzen lan handia egin du»

N. BAZTERRIKA | ALMANDOZ

Grabatuak, ilustrazioak eta zeramikak. Kontaiguzu ibilbidea.

Artista beranta naiz. Akuarela betidanik egin dut, hori izan da nire aisialdiko ekintzetako bat. Seme-alabak beren aldetik joan zirelarik, berrogeita bortz bat urterekin, Parisera joan nintzen ikastera. Liburuak ilustratu izan ditut bertzeentzat, enkarguz. Hamar urtez Euskal Herriko gaien inguruko grabatuak ere egin ditut: pilotariak, arraunlariak...

Liburuak ilustratzetik liburua idaztera.

Euskara ikasteko hasi nintzen idazten. Euskalduna, baserritarra, Almandozen sortua naiz eta egundaino ez dut euskara galdu. Baina, Donostiara nahiko gazterik joan nintzen eta EGA azterketa prestatzen ari nintzela, berriz ere gogoetak zetozkidan burura: 'hau nola erranen ote luke nire aitak?' pentsa-tzen nuen. Erroetara itzuli nahi nuen, horren nirea sentitzen nuen euskara horri astinaldi bat eman. **Lolita izenburu. Zure izena eta izana?**

Nire gurasoek Maria Dolores izena paratu zidaten. Barkatuko didate, baina defendatzeko ahalmenik ez duen haur bati Maria Dolores izena paratzea delitua da. Pixka bat konpondu zuten eta Lolita erratan zidaten ni-



UTZITAKO ARGAZKIA

Urriaren 15ean Iruritako Jauregiarte tabernan aurkeztu zuen liburua.

ri etxean, eta horixe zen nire izen kuttuna. Bertzalde, *Lolita* Nabokovek 1955ean idatzirikoa nobela erotikoa izenburua ere bada eta nik konnotazio literario hori atxiki nahi nion. Kasu honetan ezin erran daiteke erotikoa denik, baina... edozeinek apal batean *Lolita* ikustean eskuan hartuko dutelako ustean, paratzea erabaki nuen. Lolita izena ematen badiot ere, Euskal Herrian, gure belaunaldian, Lolita anitz izan direla argi utzi nahi dut, ez baita nire bizitzara lerratzen. **Zein da liburuaren ardatza?**

73 urteko emakume baten bidaia da. Mendiolan sortua naiz, toki iso-

ARTEA

«Arteak sakrifizio handia eskatzen du, eta hori ez da baloratzeko, guti ordaintzen da. Aitzinetik ile-apaindegi bat izan nuen 30 urtez, eta hor irabazitakoarekin ateratu dut bizia».

EMAKUMEA

«Aunitz kezkatzen nau gizarteak emakumearekiko duen jarrerak. Badiirudi ez direla duen garrantziaz jabetzen. Baina zibilizazio hau emakumerik gabe ez litzateke egonen».

latu batean. Duela 500 urte jendea bizi zen bezala bizi izan da 12 urteak bitarte. 12 urteak nire bizitzaren antzina eta oraina markatzen dute. Ordura arte, igandetan mezara joaten ginen, eskola baserrian genuen... eta hori islatu nahi izan dut. 50eko hamarkadan auzo hori hustu zenez, orain arras jende guti bizi da han: batzuk Ameriketara joan ziren, bertze batzuk Doneztebera, gu Berara... Horrekin gure belaunaldiak Euskal Herria modernizatzen egin duen eginahala azpimarratu nahi izan dut, gure lurraldean dauden Lolita guztien ahaleginarekin lortu dugun animaleko saltoa: elizari bizka-

rra eman, arauak hautsi, seme-alabak euskaraz hazi... Buruan gelditu zaizkiten momentuak biltzen dira: haurtzaroaren nostalgia, agoteen historia, Mali eta Algerian eginiko bidaia, gogoetak... Nire ilobek irri egiten dute, baina bilobentzat bertze mundu bat izanen da, ez gara itzuliko mendian bizitzera, gaztain erreka jatera, su ondoan egotera, belarritako zuloak kortxoarekin egitera... Ondorengoek gure bizimodua ezagutzeko lekukotasun bat baino ez da.

Nola defini daiteke zure idazkera estila?

Niri literatura txukuna, polita eta ulergarria gustatzen zait, bi aldiz irakurri behar ez dena. Soiltasuna, naturaltasuna eta goxotasuna ardatz dituen. Ongi eta ulergarri idazteak badiotu bere zailtasunak, beraz, ez dakit lortu ote dudan. Hizkera aldetik, tokiko estandarrari eutsi diot, hemengo eta iparraldeko hitzak, beti ere batuaren barne daudenak, tartekatuz.

Etorkizunera begira bazu du aurreikuspenik?

Orain emakumearen presentzia ageriko egiteko eta merezi duen tokia eskaintzeko, kontaketa laburrak eta erotikoa bilduz, liburu ilustratu bat eginen dut, grabatuan. Aunitz kezkatzen nau emakumearen egoerak.

PATXI ASTIBIA OLANO → LEITZAKO AIZKOLARIA

«Aizkoran apustuak beharrezkoak dira»

Historiako aizkolaririk haundienetako izandu den leitzarraren ibilbidea kontatuz, liburua argitaratu dute

16 urterekin irabazi zuen bere aurreneko txapelketa eta jokaturako apustu guztiak irabazitakoa da. Istripu baten ondorioz, 29 urterekin aizkora utzi zuen arte, puntako aizkolaria izandu zen.

G. PIKABEA

Ibilbide laburra, baina emankorra. Halaxe laburtzen ahal da Patxi Astibia Olanok aizkoraren munduan utzi duen arrastoa. Halabeharrez aizkoratik erretiratu bazen ere, tarte horretan eman zituen aizkora kolpeak ez ziren alferrikakoak izandu.

Leitzako Donmartinborda baserrian jaio zen 1943ko ilbeltzaren 24an, eta lauzpabost urterekin herrira joan ziren bizitzera. Hantxe hasi zen aizkorarekin aurreneko kolpeak ematen. Hamabost senideetan bosgarrena da Patxi eta gogoan duenez, «anaiak astoarekin menditik ekarritako enbor kozak korrak koskatzen aritzen nintzen etxe atarian. Zortzi bat urte izanen nituen». Inork gutxik pentsatuko zuen kolpe haiek halako oihartzuna izanen zutenik.

GAZTETATIK TXAPELAREKIN

Hamalau urterekin jokatu zuen bere aurreneko txapelketa: «orain de-

la 60 urte, Leitzan txapelketa bat jokatu zen, eta hamalau aizkolaria ateraginen. Seigarren gelditu nintzen». 1959an jokatu zuen bigarrena, eta irabazi egin zuen: «16 urterekin Gipuzkoan 22 urtez beherakoen txapelketa bat antolatu zuten eta hura irabazi egin nuen».

Lehenbiziko apustua 20 urterekin jokatu zuen: «legasar bat Frantzian prestatu zutela eta Leitzan kintoz beherakorik prest baldin bazen, aizkoran jokatuko ziola esan zioten nire nagusiari. Nagusia nirekin akordatu zen eta horrela jokatu nuen nire lehenbiziko apustua». Baita irabazi ere. «Sekula ez nuen kanaerdikorik ebakia, eta 26 egun entrenatzen pasatu ondoren, hamasei kanaerdiko ebaki nituen apustu egunean». Ongi oroitzen da jendeak ez zuela itxaropen haundirik beregan: «mutiko horrek nola ebakidizkik hamasei kanaerdiko?» esaten zuten herrian, baina erraz egin nituen».



ARGAZKIA: NEREA MAZKIARAN

74 urterekin, oraindik ere aizkorarekin ederki moldatzen da Leitzako aizkolaria haundia.

«Zortzi bat urterekin, etxe atarian beti egurrak koskatzen aritzen nintzen».

Patxi ASTIBIA OLANO
Leitzako aizkolaria

APUSTUEN INDARRA

Txapelketaz txapelketa eta apustuz apustu, garai hartako aizkolaririk onenatarikoa izatera ailegatu zen Astibia. Eta bere lorpenak izan ziren hopen lekuko. Espainiar estatuko txapelketa hiru aldiz irabazi zuen, 1968, 1969 eta 1971n, eta Euskal Herri mailakoa behin, 1968an.

Apustu gogoangarri asko jokatu zituen. Are gehiago, jokaturako guztiak irabazi zituen. Hori artean aipatzekoak dira Berakoetxea, Latasa eta Arria II.aren kontra jokaturako lau apustuak. Zehaztasun haundiarekin oroitzen da apustu haietaz: «apustu horiek kostata irabaziak izandu ziren, eta ongi grabatuak gelditu dira», dio parrez.

Latasaren kontra jokaturakoaz honela adierazi digu: «Latasak Berakoetxea eta bioi desafioa bota zigan, guk bina egurretik txanda hartuz bere aurka jokatzeko. Baina nik bakarrik jokaturako nio-

la esan nion sozioari. Hasi errieta egin zidan, baina proba bat egin ondoren, bakarrik jokatzera animatu ninduen. Lau kanakotara irabazi nion Latasari, garai hartan, egur haundien maisua zen aizkolariari». 61 minutu eta 9 segundotan bukatu zituen lanak leitzarrak, eta 63 minutu eta 13 segundotan sunbildarrak.

Arria II.aren kontra bi apustu egin zituen, eta batean «larri» ibili omen ziren: «4.000 lagun bildu ziren Anoetako belodromoan apustua ikustera, bero haundia zegoen eta puro eta zigarroen kearekin biak gaizki ibili ginen.

Motzean

• Aizkolari bat?

Gure gazte denborako maisua Ramon Latasa izan du zen. Badira beste batzuk ere onak izanduak: Mindegia, Arria, Garziarena...

• Apusturako plaza bat?

Leitzako plaza. Elegantea da. 4.000 lagun sartzen dira.

• Noren aurka jokatuko zenuke orain apustua?

Nire adineko norbaiten kontra.

• Lehengo edo oraingo aizkolariak dira hobekak?

Lehengoak. Gogoragoak ziren, larre motzean ohitutakoak.

• Nola ikusten dituzu egungo aizkolariak?

Batzuk oso onak dira. Saralegitar bi lehengusuak oso onak dira, Mieltxo Mindegia ere puntako aizkolaria izaten ahal dela uste dut. Eta Gipuzkoan ere badira politikak, nahiz eta gehixeago egin beharko luketeela iruditzen zaidan.

• Apustuak ala txapelketak nahiago?

Apustuak, bestelako saltsa sortzen dute.

• Aizkorarik hoberenak?

Australiakoak. Hemengoak baino askoz hobekak dira.

Arriak ez zituen lanak bukatu eta nik justu-justu».

Aizkora kirol izarrazen denborak ziren: «4.000 lagun joaten ziren garai hartan aizkora apustuak ikustera. Orain milara ailegatzen lanak izaten dira», adierazi digu. Haler, «aizkora munduan apustuak beharrezkoak» direla uste du: «horrek mugiarazten du jendea. Ez dute lehen adina biltzen, baina apustuek beste saltsa sortzen dute».

EUSKAL HERRITIK KANPO ERE EZAGUN

Euskal Herrian ez ezik, espainiar estatuan ere ospetsu bilakatu zen Astibia. Berak dioen bezala, «gu ginen garai hartako Messi». Eta horretan telebistak zerikusia izan duen. TVE sortu berrian, zuri-beltzeko pantailan agertu zen 1964 bukarran eta 1965 hasieran, *La unión hace la fuerza* saioan. «Taldea bakoitzean, bost intelektualek eta kirolari bat ginen, eta Nafarroako taldeko kirolari

laria ni izan du nintzen. Intelektualek galdera asmatzen ez bazuten, nik egur bat moztu behar izaten nuen. Alditik aldira gero eta denbora gutxiago izaten nuen mozteko; azken enborra 22 segundotan egin behar izaten nuen. Aurreneko bueltan txapel-dun gelditu ginen, baina bigarrenean, bi dezimategatik galdu genuen».

«Orduko oroitzapen oso onak» dituela aitortu digu, baina «apuru eder-rak» pasatutakoa omen da: «Leitzatik atera ga-bea nintzen», dio umoretsu. «Doneztebe, Sunbilla, Lesaka eta Etxalar aldean zazpi urte egin nituen mendian lanean, eta gero aizkoran hasi nintzen. Horren ondotik aterazen telebistako programa». Benetako iraultza ekarri zuen telebistak, eta Astibiarentzat ere ez zen hutsean gelditu eragina: «kate bakarria izaten zen eta han agertuta, ospe handia hartu nuen. Madrillgo kaleetan ibiltzen ginenean, jendea autogra-



JOSEBA URRETABIZKAIAK UTZITAKO ARGAZKIAK

Goiko argazkian, 60ko hamarkadan Leitzako plazan jokatutako aizkora txapelketa bat.

Beheko argazkian, Patxi Astibia ageri da erdian, 60ko hamarkadan, Madriletik etxera bueltan heldu zenean, jarraitzailez inguratuta. Lortu zuen arrakastaren seinale.

«29 urterekin, sasoirik hobereanean, erretiroa hartu behar izan du nuen».

Patxi ASTIBIA OLANO Leitzako aizkolaria

foak eskatzera etortzen zitzaigun».

Hain oparoen izaten ari zen ibilbideari 1972an esan zion agur leitzarrak: «mendian lanean ari nintzela, zuhaitz batek azpian harrapatu ninduen eta erretiratu behar izan du nuen». Onartu digunez, «beti pena horixe izaten dut, 29 urterekin, orduantxe nengoelako sasoirik hobereanean. Zorte txarra izan du nuen».

Aspaldi hartu zuen ofizialki erretiroa, baina ez zuen utzi aizkora. Oraindik ere esku artean ibil-

tzen baitu bere tresna kuttuna: «hobby bezala aritzen naiz, etxerako sutarako egurra egin bidenabar». Horixe delako gustatzen zaiona. Eta 74 urterekin oraindik ederki moldatzen da. Joan den urtean, esaterako, Ramon Latasaren heriotzaren 25. urteurreneko jaialdian aritu zen. 73 urterekin oinbiko enbor bat moztu zuen, 72 ontzako enborra, zazpi minutu eta 47 segundotan. Desafiorako prest zen orduan ere. Berez, Arria II.aren kontra aritzekoa zen, baina azkenean, gipuzkoarrak min hartu zuelako bakarrik eskaini zuen saioa.

Orain, berriz, utzi duen arrastoa bilduz, liburu eskaini diote. Xibarit argitaletxeak *Patxi Astibia aizkolaria* argitaratu

du. Iñigo Goñik idatzi du testua, eta Joseba Urretabizkaia arduratu da irudiez eta edizioaz. 72 orrialdeko liburuaren 250 ale atera dituzte eta 30 eurotan jarri dute salgai. *Jentilak* bildumaren barne argitaratu dute, eta trilogia baten aurreneko lana da. Astibiarekin egin duten bezala, Miel Mindegia eta Arria II.a aizkolariekin ere egin nahi baitute, eta gerora, herri-kirolletako beste kirolariekin.

Azaroaren 3an aurkeztu zuten Astibiaren liburu, eta biharamunean omenaldia eskaini zioten herrian. Merezitako omenaldia. Jendetza bildu zen frontoian, eta orduan ere hainbeste maite duen aizkoraz gozatzeko aukera izan du zuten. Aizkora odolean daramalako.



Nire txanda
Koro IRAZOKI

Etxe berean gertatutakoak

Denek dakite goitiko bizilaguna ez dela behar den bezala aberastu, tratatu zikin bidez baizik. Ondokoa ere susmopean dugu, dauzkan koxe elegantea eta Benidormeko apartamentua nola lortu ote dituen. 2Dkoa ebaskuan atzeman dute, baina ez omen da “froga nahikorik” kondenatzeko. Badakigu honi laguntzen aritu direla 4A eta 1Ekoak, baina hauek ere hortxe dabilta trankil. Eta makurrena: “administradore” lanak egiten dituenak, gure dirua gaizki erabiltzeagatik epaitzen ari dira! Arazo gehiago ere baditugu: 1Dkoak dio administradoreak sobera kobratzen diola, eta fuerte kexatu da. 5Ckoak arautegia zaharregia dela dio, eta errebisatzea eskatu du, bainon administradoreak *nanay de la china* erantzun dio. 3Bkoa ez da gustura bizi gure eraikinean, eta partitu nahi du, baina arauak ez omen dio gatera uzten. Eta sorpresan hartu genuen duela egun gutti 2Akoak etxetik eskapo egin zuenean, administradoreari burutik-beheiti zernahi erran ondolik. Kexatu diren guzti hauek atxilotu dituzte (eskapo egin zuena Estrasburgon gordeta omen da). A, ze etxea gure hau: kezkatu eta beldurtzen gaituztenak libro dabilta hor barna, eta gauzak aldatzen saiatzen direnak berriz, preso eman dituzte.

Ezpala

Aitor AROTZENA

Sorgindutako zenbakiak

Aspaldixko eman zigun Patziku Perurenak euskarak sorgindutako numeroen berri. *564 ohe huts...* kantatu zuen Hertzainak taldeak duela hamarkada batzuk. *Zenbat gara? 1, 4, 3, 5, 7...* Baina euskarari ez ezik, ez bat eta ez bi, edozein hizkuntzetan badira azalpenik behar ez duten zenbakiak: 666, 69, 13... Zerrenda horri, bertze bat gehitu zaio orain: 155. ... *Samina zabaltzen!*

Nabarmentzekoak



Ruben SARALEGI
Bigarren mailan txapel-dun



Josetxo EZKURRA II.a
Azpeitian txapel-dun



Jose UGALDE
Dantxarinereko Peio Bentakoa

Euskal Herriko bigarren mailako aizkora txapelketa irabazi zuen leitzarrak urriaren 29an Azkoitian. Hirugarrenez ariko da lehen mailan, oraingoan kategoria ez galtzeko helburuarekin.

Doneztebeko aurrelariak eta lonek irabazi dute Azpeitiko erremonte txapelketa. Ezkurra II.a izan zen txapelketako eta finalerako pilotari onena. Orain, Endikarekin ari da binakako txapelketan.

Dantxarinereko IV. Pintxoren Hamabostaldiaren barnean egindako lehia-ketan, Peio Bentako sukaldariaren *foie plantxan uso eta onddoz egindako risotto baten gainean* pintxo nagusitu da.

Atzera begira → 2007-XI-15 • TTIPI-TTAPA 458. zk



Javier Mariezkurrena doneztebarra: pilotatik piloto izatera

Lau urte lehenago kamioi zahar batekin proba egin eta Europako abiadura kamioien txapelketan denboraldirik onena egin zuen Javier Mariezkurrena doneztebarra elkarriketatu zuen TTIPI-TTAPAK duela hamar urte. «Etxean egindako kamioarekin aurre egin diegu aurten eskuderia ofizialei» aipatu zigun. Kamioia hartu baino lehen, hamar aldiz laxoa txapelketa irabazia zen Doneztebeko taldearekin, baina «burniak betidanik gustatu» zaizkiola eta «pilotarako zaharregia» zela kontuan hartuz, hasi zen kamioiak gidatzen txapelketan. Hortaz, pilotatik piloto izatera pasatu zela erran daiteke.

ttipi-ttapa

Argitaratzailea Ttipi-Ttapa Fundazioa • Egoitza Koskontako bidea, 07-1 • 31770 LESAKA
Tel. (+34) 948 635458 • Faxe (+34) 948 635457 • whatsapp: 744 484361 • info@ttipi.eus

Zuzendaria Aitor Arotzena Erredakzioa Gurutze Pikabea, Eneritz Iraola Publizitatea Usoa Vicente, Amaia Odriozola, Arantza Agirre Berriemaileak Arkaitz Mindegia, Josebiñe Agirre, Koro Irazoki, Nerea Altzuri, Joseba Urroz, Irune Elizagoien, Maider Petrirena, Markel Lizasoain, Fermin Etxekolonea, Fernando Etxeberria, Joana Guerendiain, Martin Bertiz, Mattin Larraide, Juan Mari Barriola, Iñigo Imaz, Marga Erdozain

Fundazioaren Presidentea Pello Apeztexea Kudeatzailea Joxemanuel Irigoien Administrazioa Amaia Goia

Lege Gordailua NA-1324/85 • ISSN 1578-4673 • Tirada 6.000 ale

Erakunde laguntzaileak Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Sara eta Senpereko udalak, Zugarramurdiko Akelarre elkart, Malerrekako Zerbitzuen Mank.

2017ko harpidetza sariak

Baztan, Urdazubi eta Malerreka	36€
Leitza	22€
Hego Euskal Herria	42€
Ipar Euskal Herria, Europa	75€
Amerika eta Australia	130€

Nafarroako
Gobernua



Gobierno
de Navarra



Bortzirietako Euskara
Mankomunitateak
diruz lagundua



Prentsatik bildutakoak



«Dena ekoizpen handira bideratu da eta nekazaritza txikira egokitu behar dira araudi eta baldintzak. Jende gaztea bada honetan lan egin nahi duena, baina gure ingurura egokitutako eredu bat behar da. Bidea erraztu behar da, eta irtenbide indibidualetatik kolektiboetara pasatu. Ez dira gauza bera gure ekoizpena eta industrialia eta hori baloratu egin behar da».

Gotzone SESTORAIN
Leitzako baserritarra
GARA 2017.11.05



«Berdin du Nafarroako pilotaririk ez izatea [lau eta erdiko] finalean, enpresei pilotarien kalitatea inporta zaie. Irujok eta Aimarrek mugitu duten jendetza mugitzea zail izanen dute, baina gibeletik badatoz pilotariak. Kezkagarrigoa izanen litzateke gibeletik pilotaririk ez balitz. Pilotariak ona izan behar du jendea erakartzeko, berdin du nongoa den».

Inaxio ERRANDONEA
ASPEko zuzendaria
D.NOTICIAS 2017.11.07

11 galdera labur

Nor da Esther Carrizo?

Cacerestar odola duen donostiar alai, azken 21 urteetan Beran bizi dena.

Zein zaletasun dituzu?

Itsasoan murgiltzea, mendian zentzumenak irekitzea, irakurtzea, kantatzea, dantzatzea...

Zer du Berak Donostiak ez duena?

Paisaiatz betetako paradisu txikia.

Noiz hasi zinen antzerkian?

1988an, hogeita lau urterekin, jostun bezala. Ondotik, antzerkiarekin loturiko ia lan guztiak egin ditut: atrezzo eta administrazioetik, aktorea eta clown formatzaile-raino.

Zer eskaintzen dizu antzerkiak?

Mugarik gabeko espazio bat. Antzerkia arte bateratzailea da, berze arte guztiak bildu, pertsonekin jolas bidez topo egin eta emaitza publikoarekin partekatzea eskaintzen duena.

'Harritik hazia, herri antzerkia'...

Emanaldia izatetik emakumearen oroimen zelai izatera igaro den bitxi ederra da.

Berriz ikusterik izanen dugu?

Hurrengo aukerak Lesakan, Aranzan eta Atarrabian izan daitezke, baina oraindik finkatzeke daude.

Ikastaroak ere ematen dituzue...

Bai, adin guztietarako. Edozein adin aproposa da gure barneko argi eta itzalei kiilikak egiteko!

Nola bizi duzu Berako kafe-antzerki zikloa?

Nahiko urrun. Anitzetan kanpoan edo lanean arrapatzen nau, baina ahal izanez gero, ez dut hutsik egiten. Antzerkiak, areto klasikoetik kanpo, gozatzeko aukera ederra da!

Zerk egiten zaitu zoriontsu?

Bizitzak berak!

Amets bat?

Pertsona erdigune eta artea, ingurumena eta feminismoa zutabe dituen heziketa eredu bat sortzea.



Esther CARRIZO → Beran bizi den donostiarra

1951tik
Casa Cambra
lentzeria-etxea

Funda nordiko eta edredoietan espezialistak
edredoi fundak · albornoak · edredoi nordikoak · ohe estalkiak · maindireak · mantelak · kuxinak · toailak
Tafalla, 13 · IRUÑEA · 948 230 634



Irakurleak mintzo

Migeltxo Makuso hil da, Aurtizko gizon umil eta on bat

Garbiñe LEIZA (Aurtitz)

Migeltxo Makuso hil da, Aurtizko gizon umil eta on bat.

Hori zen Migeltxo bere hurbilekoentzat, baina txistulari haundi bat ere bazen. Bere lehenbiziko txistua Arantzan erosi zuen, attarekin mendiz joan zen. Baina txistu harekin sobera gustura ez zegoenez, Donostira joan zen Isidro Ansorenarengana, harek txistua moldatzeko. Ezin zuela moldatu eta bertan ikusi zuen denda batean egurrezko txistu bat, 700 pezetan erosi eta bueltatu

zen. Hori izan da bere txistulaguna: "joaldi ederrak egin ditu txistu honek" erraten zuen. 14 urterekin hasi zen txistua jotzen, eta hiruretan hogeita hamaseitan oraindik jotzen zuen. Ateri kontuak.

Txistua jotzen ikastera Narbartera joaten zen, oinez, Ittungo Aurelio Sagasetarekin batera (hau bizikletaz). Tikitikitik bazekielako hori zela bere pasioa eta bere bitzta. Beti oroitzen zen ikasiriko lehenbiziko piezaz.

Generazio baten lekuko eta partaide izan da, txistulari haundiekin harremana izan du: Isidro Ansorena, bere iloba den Jose Ignacio Ansorena, Santiago Irigoien, Maurizio Elizalde eta Felix Iriarte, Larraletarrak, Juan Mari

Beltran... aunitz utziko ditut, barkatu.

Malerrekan txistua jotzen dugun aunitz berekin hasi ginen, bera izan zen mutiko eta neska kokkor aunitzen mai-sua.

Horren lekuko asteazkenean egin genion agurra: Loli, Itziar, Mintxo, Beatriz, Mikel eta ni txistuan, organoan Aurelio, bere Narbarte bideko laguna... Eta tanborran Fermin, ia 50 urtez elkarrekin jo ondok, agurra egitea tokatu zaizu.

Alabari eta ilobari ere erakutsi zien, azken urteetako bere txistu ki-deak, Ferminekin batera.

Tradizio zale amorratua, betiko txistu zalea (fa sostenidoan), eta aldi berean, idekia.

Bere jotzeko modu-



ARTXIBOKO ARGAZKIA

2006ko inauterietan omendu zuten Migeltxo Makuso.

ak egin du berezi Migeltxo, herri musikan ordezkari garrantzitsu bat, dudarik gabe.

Berari buruz argitaratutako lan batzuk:

-Herriko Musika: 1977. LP. Movieplay-Kardantxa. 170912/2

-Euskal Herriatik- Del país de los Vascos: Euskal Telebista, 1997. VHS.

-Herriz-herri: Ttipi-

ttapa: Miguel Makuso. 2000

-Reliquias de Santa Teresita. Donamaria, 2003ko irailaren 29a, VHS.

-Astiazaran Korta, Jagoba: Vatikanoko II. Kontzilioa eta Euskal musika eta instrumentuak. Musikene, 2008.

Eskerrik asko Migeltxo!

IRAKURLEAK MINTZO Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 24 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. TTIPI-TTAPAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen-deiturak, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.

e-Posta:

info@ttipi.eus

Posta: **Koskontako bidea, 07-1, 31770 LESAKA**

Tel.: **948 63 54 58**

Faxa: **948 63 54 57**

Alberto RETEGI
abokatua
© 948 630 763 · Altzate, 17 · BERA

sarobe
gozotegia okindegia
pº de eztegarra 25 bajo 31780 bera-(navarra) t.948630899
www.sarobe.net

Zalain
JATETXEA RESTAURANTE
Zalain Auzoa z/g
31780 Bera
t. 948 631 106
w. www.zalain.info

F. LANCHAS
Akutxiladorea eta bernizatzailea
Parket eta parket flotatzailea
jartzea
Mota guztietako zolak
Tel: 948 630 735 M: 607 406 781

LARRETXEAK EGVRRAK
Zuhaitzak erosi, bota eta ateri. Piketeak eta sutarako egurra.
Pio Baroja, 3 | Obenea | Bera | T. 617 981 427

Zalain

GIZARTEA → AZAROAREN 2AN ETA 8TIK 15ERA

Lodosa eta Lanzaroteko bidaiak izan dira aurtengo azkenak

Zuzendaritza-batzordea abenduan banatuko den aldizkaria berrikusten ari da

Fernando ETXEBERRIA

Urteroko hitzorduari hutsik egin gabe, aurtenera, elkarteko 155 kide Lodosara joan ziren azaroaren 2an. Joan den urtean baino dozena bat gehiago izan ziren animatu zirenak. Lizarran egin zuten lehendabiziko geldialdia, eta gosaltzeko ez ezik, bertako feria giroaz gozatzeko aukera izan zuten.

Ondotik, Lodosan, Peron fabrikara egin zu-

ten bisita, piper-kontserben fabrikazioaren nondik-norakoak ezagutuz.

Eguerdian Azagrara joan ziren eta bertan bazkaldu zuten. Bazkalondoa bingoan aritu ziren eta opariak banatu zituzten. Arratsaldeko 7ak arte, Joseanen musika lagun, kantuan eta dantzan aritzeko aukera izan zuten.

Lanzarotera bidaia

Azaroaren 8tik 15era bitarte, 45 bazkide Lanzaroten izan dira. Azken bi bidaia horiekin aurtengo ateraldiak borobildu eta heldu den urterakoei begira jarriak dira. Arego, zuzendaritza-batzordea, dagoeneko, abenduan ordezkariak banatuko zaien aldizkaria berrikusten ari da.



ARGAZKIA: FERNANDO ETXEBERRIA

Bazkalondoa bingoa eta sari banaketaz gain, Joseanen musika ere izan zuten Lodosan.



ARGAZKIA: FERNANDO ETXEBERRIA

Elkarteko kideen eskulanak ikusgai izan ziren Elizondon

Elizondoko ferien harira, Arkupeak Elkarteko hainbat kidek, urriaren 27 eta 28an beren lanen erakusketa egin zuten. Mary Puy Luquin, Milagros Esteban, Blanca Bertiz, Alexandro Pizzi eta Mari Carmen Auzquik margolanak; Juan Maria Errotabere eta Pedro Artetak egurrarekin eginiko lanak; eta Tere Bohillo eta Rosa Mari Bertizek ehoziariak plazaratu zituzten.

HITZALDIAK

Ictusa eta elikadura osasuntsua izan dituzte hizpide

F. ETXEBERRIA

Arkupeak Elkarteko kideak ictusari eta elikadura osasuntsuari buruzko hitzaldietan ibili dira eskualdeko zenbait herritan.

Bertzeak bertze, urriaren 24 eta 26an, ictusaz solastatzeko lehen bilkurak izan zituzten, Do-

neztebeko egoitzan eta Leitzan, hurrenez hurren. Donezteben 70 lagun eta Leitzan 62 lagun bildu ziren. Adacen Nafarroako Garuneko Lesioaren Elkarteko kide den Usoak eskaini zituzten hitzaldiak. Ictusari aurre egiteko dieta egokiak, kirola egiteak, ten-



tsioa eta kolesterolaren kontrolak duten garrantzia izan ziren jorratutako alderdiak.

Urriaren 25ean eta azaroaren 2an, aldiz, Beran eta Elizondon, *Adi-*

neko jenderarendako elikadura osasuntsua izeneko hitzaldia eskaini zuten Josetxo Ruiz de Lopetedik. 43 lagunek parte hartu zuten Berako saioan; Elizondokoan,

aldiz, 24 bildu ziren. Hizlariak gosari, bazkari zein afarietan jan beharkeko liratekeen elikagaiak eta, oro har, elikadura osasuntsua izateko aholkuak banatu zituzten.

LESAKAKO FERIAK

Azaroaren 22an eta 23an ospatuko dituzte Lesakako feriak

Dia  Ferietan otordu goxoak prestatzeko

LESAKA **LESAKAKO DIA**

Plaza Berria, 10 • 948 637 335

GOZOTEGIA HAIZEA

BOLLERIA · KAFETEGIA

ongi pasa feriak!

T. 948 63 80 36 · Plaza Zaharra, 7 · LESAKA

 **IZARRA OKINDEGIA**

ongi pasa feriak!

PLAZA ZAHARRA 12-13 31770 LESAKA NAFARROA
TEL: 948 637 855

LEIZA OSTATUA

"Antoiu"

Tel. **948 637 087**

Egunero goizeko 6:00etatik irekia.

BOKATAK RAZIOAK EGUNEKO MENUAK MENU BEREZIAK ENKARGUZ

KASINO

OSTATUA - RESTAURANTE



feria alai eta pozgarriak izan ditzazuela

Plaza Zaharra • LESAKA • 948 63 72 87



Eskualdean ospatzen ditugun udazkeneko ferien artean azkenekoa izan ohi da Lesakakoa. Aurten azaroaren 22 eta 23an dute hitzordua. Egun osorako egitarau anitza dute prestatuta. Beraz, oraindik udazkeneko ferian urteroko bueltaxka eman ez baduzu, Lesakara hurbildu eta giroaz gozatzeko tenorez zabilta.

Goiz osoan, Beheko Plazan herriko artisausak izanen dira, eta Plaza Zaharraren bueltan, berriz, aziendak. Gainera, aurten, aitzineko urteetan ez bezala, herriko karrketan barna, postuetan gauzak ikusi eta erosi bitartean, Ezpelur gaiteroen musikaz gozatzeko aukera izanen da. Feria zaleek ez ezik, kirolzaleek izanen dute gozamenerako tartea. Izan ere, herri kirolak eta pilota partidak izanen dira ikusgai. Aizkora apustua 11:00etan izanen da Plaza Zaharrean; pilota partidak, berriz, udal pilotalekuan, arratsaldeko 5:30ean.

Inguruan besta giroa somatzeko eta bisitariak kantuan edo dantzan hasteko aukerarik ere ez da faltako Plaza Zaharrean. Bertzeak bertze, bertsolarien txanda izanen da aizkora apostuaren ondotik eta dantzaldia arratsaldeko 6:00etan. Dantzaldiko atsedendaldian, 19:00 aldera, Beti Gazte dantza taldeak lekukoa hartu eta dantzariak beren emanaldia eskainiko dute.

BEZPERATIK BESTA GIROA

Zalantzarik gabe egun handia ortzegunearan bada ere, bezperatik somatuko da besta usaina herrian.



Azken urteetan egin izan den bezala, arratsaldeko 6:00etan Lesakako Trikitixa Taldea herria girotzen hasiko da. Ordu berean, Beti Gazte elkarteak antolatutako ajoarriero lehiaketa egingen da Beheko Plazan (eguraldi txarra badago, berriz, Alondegiko arkupeetan egingen dute).

Bikoteka prestatuko da bakailaoa eta parte-hartzaileek bakailaoa eta hori prestatzeko behar dituzten gas-sukaldea, kazula, zartagina eta bertzelako tresneria eraman beharko dituzte; baratxuria, olio eta gatza, berriz, antolakuntzak emanen dizkie. Era berean, elkarteak 40 eurona emanen dizkie parte hartzen duten bikoteei. Sariak sailkapen hoberean duten lehendabiziko hiru bikoteentzat izanen dira. Lehiaketaren ondotik, ikustera hurbildutakoek ajoarrieroa dastatzeko aukera izanen dute.

BURDINAREN MARTXAREN 25. URTEURRENA

«Nahiak aldarrikatzeke eta hobekuntzak lortzeko borroka egitea da bidea»



Burdinaren Martxaren baitan, 1992ko urriaren 9an abiatu zen Pello Astiz herritarra Lesakatik Madrilera, Laminaciones de Lesaka lantegiko bertze 25 langilerekin batera. Siderurgia sektorearen krisi egoera larriari aurre egin eta gobernuaren politika aldatzea zuten helburu.

MOMENTU GATZAK, OROITZAPEN GOZO

Hasiera gehienei berezko zaien bezala, lehendabiziko egunak «zailak» izan ziren, «gorputza kilometroak eta kilometroak asfaltoan ibiltzera ohitu arte, jendeak gaizki pasatu zuen». Gainera, «azpiegitura aldetik baliabideak eskasak» ziren: hainbat herritan kiroldegirik prestatuak izanagatik, maiz, ez zegoen tokirik: «beraz, herrietara hurbildu ahala bilatzen genituen jateko eta lo egiteko xokoak». Nekatuta edo *logale garenean, edonon ohatze* errana gertutik bizi izan zuten. Adibidez, «Aranda de Duerora ailegatu ginen egunean 42 kilometro egin genituen, eta egun horretan ez ginen deustarako gai, afaldu gabe, etzan eta lo gelditu ginen». Edozerrekin konformatzen ziren, «ukuilueta, oilo artean ere lo egin genuen». Momentu «gogorrak» bizi izanagatik, oroitzapen «onak» gelditu zaizkiola erran digu.



Pello Astiz lesakarra.

ELKARTASUNA

Herriz herri jasotako babesa, eta bereziki, Madrilen «lehertu» zen manifestaldiko momentua azpimarratu nahi izan du. Es-

tatu osoko langileekin eta elkartasuna adieraztera joandako herritarrekin bat egitea «izugarria» izan zen: «Bizkaitik, Asturiastik eta Lesakatik joan ziren autobusak, herritik, adibidez, sei joan ziren».

HELBURUAK ETA EGINIKO BIDEA

Azken helburua, «Europatik zetorren berregituraketa, 10.000 lanpostu zuzenen desagerpena eraginen zuena, saihestu eta enpresak plan industrialak garatzea» zen. Aitzinetik «grebak eta manifestaldi tikiak eginez» ez zuten «deus» lortu: «enpresak erretiroak ardatz zituen bertzelako planak» egin zituen, baina horiek «ez ziren guk eskatzen genituen plan industrialak». Nahiz eta azken helburu hori hankamotz gelditu, «fabrika itxi eta jendea kaleratu baitzen», ezin erran daiteke borroka baliorik izan ez zuenik: «borroka guztiek dute beren emaitza».

Eginiko mobilizazioak «kaleratzeen baldintzak hobetzeko» balio izan zuen. Orain, hogeita bortz urteren ondotik, «helburuen lorpenetan sartu gabe, oroimen historikoa» egin dute. Joan ziren langileak elkartzuz, «kinka larrian zegoen industria indartsu hark biziarazi zizkigun egoerak eta horren ondorio izan ziren mobilizazioak oroitarazteko» tarte bat hartu dute. Horrela, bide batez, «garaiko prentsatik mozutako zatiak, komunikatuak, sindikatuen txartelak, argazkiak... ikusiz edota gaien aditua den Xabier Barrutiaren hitzaldia entzunez» gertakaria «ezagutazi» nahi izan dute.

ONGI PASA FERIEGAN!

borroka

IMPRESA - HOPISTEGIA

948 631 521

material guztietan inprimatzen dugu
hamisetak / oparitzeko artikulua

A, B eta C motako GASOLIOA ETXERA

24 ORDUZ

Bidasoa

GASOLINDEGIA

Alkaiaga Industrialdea, 4. LESAKA · T. 609 446 693

TRANSPORTES IRIGOYEN

ONGI PASA FERIAK!

629 592 215 · Biurrana auzoa, 1 · LESAKA

ZOANSA

ONGI PASA FERIAK!

MARKA GUZTIEN KONPONKETA

MEKANIKA • ELEKTRIZITATEA • TXAPA • PINTURA

Tel.: 948 62 55 55 • Fax: 948 62 55 05

e-mail: zoansa@zoansa.com

Banarta, 2 • Alkaiaga Ind. • 31789 LESAKA (Nafarroa)

www.kattagorria.com

kattagorria

lentzeria mertzeria

Behoko plaza, 10 LESAKA · 948 627 514

Baserritar jantzien **KOLEKZIO BERRIA**
ESKAINITZA HANDIA!!

FERIETAN,
EGUN OSOA IREKIA

NIK HERRI BAZ BAT NAHI DUT!

IRU BIDE Erregetgia · Asador



Biurrana, 3
LESAKA
Tel: 948 637 127

TALLERES FRAIN

LESAKA · Tel.: 948 637 525

Ongi pasa feriak!

asesoria
Emaitza
AHOLKULARITZA

Kontable · Fiskala · Laborala

ongi pasa feriak!

Eltzeta, 20 behea LESAKA | 948 638 077 | amaia@emaitza.eu

urtek
water technologies · uren tratamenduak

POTABILIZAZIOA, DESMINERALIZAZIOA,
DESKALTIFIKAZIOA, OSMOSIA, FILTRAZIOA,
BERRERABILPENA, DEPURAZIOA,
INSTALAZIOEN MANTENUA.

T. 948 638 188 | urtek@urtek.org | www.urtek.org

ekhi Ongi pasa Feriak!

Bittiria kalea-Lesaka
Telf.: 948 637 791

Okindegia. Kafetegia. Gozotegia

IÑAKI JANARIDENDA
- ONGI PASA FERIAK -



Arretxea, 12 • LESAKA • 948 638 287

XAGU
LIBURUDENDA

Koskontako bidea, 7
(osasun-zentroaren parean)
31770 LESAKA
Tel. / Fax 948 638 232

INTERNETEKO EROSKETEN
BILKETA ETA ITZULKETA ZERBITZUA



Amazon
Corte Ingles
Zalando
Fnac
Kiabi
Philips ...

EROSKETAK
JASOTZEKO
GUNEA



Modesto MAIA | Beti Gazte elkarteko kidea

«Lesaka hagitz maitea dut eta horregatik saltsa guztietan ibiltzen naiz»

Hogeita hamazazpi urtez Lesakako udal-
txeko langilea, gazte-gaztetik Beti Gazte
elkarteko eta haren Mendi Taldeko par-
taide... herrian eta herriarentzat lan han-
dia eginikoa da Modesto Maia.

Urrian erretiroa hartu bazuen ere, «denbo-
ra dastatzeko» aukera anitzik ez du izan.
Areago, dagoeneko azaroko urteroko hitz-
orduari begira dago. Herriar anitzentzat
bezala, Modesto Maiarentzat «plaza in-
guruan sortzen den baserriko giroak, bert-
solarien saioak eta bertzelako ekitaldiek
egun polita pasatzeko aukera eskaintzen
dute». Horixe da hain zuzen, urtez urte
lantokian jaieguna eskatu eta herriko feri-
etan izaten den saltsaz gozatzeko aitzar-
kia.

TRADIZIO LUZEKO HITZORDUA

Lesakako feriak tradizio luzeko feriak di-
ra. Zehazki, 1499an hasi ziren ospatzen.
Garai batean, «hamabortz egunetarik be-
hin, ortzegunetan, merkatua egiten zen»
eta azaroako hitzorduari «merkatu eta
merkatu arteko feria zeritzon». Egun han-
dia ortzeguna izanagatik, «bezperan
merkatu hautsia ospatzen zen, baserri-
tarrentzat hutsik egin gabeko besta iza-
ten zena».

Halere, ezin erran daiteke ferien berezko-
tasuna bere horretan mantendu denik,
«bizimoduak aldatzeak, ferien izaera al-
datzea eragin baitu». Garai bateko «azien-
daren balioa galdu da», eta horrek, egun
«tradizioari eusten zaiola islatu nahi badu
ere, besta ederra egiteko aitzakia da azien-
dak eskaintzen duena». Behi eroen sin-
dromea pil-pilean egon zen urtean, esa-
terako, «gai horretan aditua zen albaitari
bat ekarri eta hitzaldira ez zen inor agertu.
Argi dago lesakarrak hitzaldietarako baino
bestarako zaletasun handiagoa dugula!».

BORTZ HERRIETAKO LEHIAKETA

Feria horren berezitasun nagusia «bortz
herrietako azien-
daren balioa galdu da», eta horrek, egun
«tradizioari eusten zaiola islatu nahi badu
ere, besta ederra egiteko aitzakia da azien-
dak eskaintzen duena». Behi eroen sin-
dromea pil-pilean egon zen urtean, esa-
terako, «gai horretan aditua zen albaitari
bat ekarri eta hitzaldira ez zen inor agertu.
Argi dago lesakarrak hitzaldietarako baino
bestarako zaletasun handiagoa dugula!».



UTZITAKO ARGAZKIA

Modesto Maia lesakarra

«behiak kendu zituzten, eta kendu ez zi-
tuztenengan ere bertzelako balioa hartu
zuen: bizitzeko bitarteko izatetik, osaga-
ri izatera igaro baitziren». Horren lekuko
da ondoko datua: «garai batean 150 bat
baserrik saltzen bazuten behi-esnea egun
bi baino ez dira gelditzen».

Hori horrela, arrentzako guttiko urteak
izan ziren. Baina «sariak handitu eta lehi-
aketan parte hartzeko gonbidapena bortz
herrietara hedatuz, parte-hartzea
areagotzea lortu zen». Gaur egun, «haragi-
tako behiak ateratzen dira», baina «za-
lantzarik gabe, behor eta zaldiak dira na-
gusi». Azien-
daren balioa galdu da», eta horrek, egun
«tradizioari eusten zaiola islatu nahi badu
ere, besta ederra egiteko aitzakia da azien-
dak eskaintzen duena». Behi eroen sin-
dromea pil-pilean egon zen urtean, esa-
terako, «gai horretan aditua zen albaitari
bat ekarri eta hitzaldira ez zen inor agertu.
Argi dago lesakarrak hitzaldietarako baino
bestarako zaletasun handiagoa dugula!».

BESTA ETA LANA UZTARTUZ

Udaletxean jai eskatuta ere, ezin erran
ferietan lanik egiten ez duenik: «aziendak
zenbatzen ibilia naiz, baita lehiaketako
puntuazioa bildu eta kontatzen ere».
Bezperan, ajoarriero lehiaketaren anto-
latzen ibiltzen da. Lehiaketa sortu zenean
«hiru bat bikote ziren aurkezten zirenak,
azken urteetan, ordea, 10-12 bat izaten
dira, nahiko egonkortua dago». Gainera,
hor eginiko ajoarrieroaz gain, ostatu-
ei bakailoa eraman eta prestatzeko ere es-
katzen diete «eta eskertzekoa da beren
lana, gehienek egiten baitigute». Postrea
ere bertatik bertara izaten dute, gaztain

saltzailea etortzen baitzaie. Hori guztia «Herriko Etxearen laguntzaz» antolatzen dute.

BERTZE HAINBAT EKITALDI

Halere, azpimarragarria da feria bezperakoa Beti Gaztek antolaturiko ekitaldietako bat baino ez dela. Pisu gehiena zalantzarik gabe futbolak hartzen du, «200 bat lagun aritzen dira haur eta heldu, gizon zein emakumeak». Futbola ez ezik, mendi irteerak ere maiz egiten dira, «ia igandero nahiz eta ez diren horrenbertze iragartzen». Era berean, ekaineko azken igandean, «Agiñan, Aita Donostiaren monumentuan hildako mendizaleei omenaldia» egiten zaie eta «txistorrada ere antolatzen da». Bertzalde, omenaldia ez ezik, zenbait ateraldi «urtero» egiten dituzte. Pirinioetara, adibidez, «uztaila aldera joaten gara eta autobusa paratzen dugu». Urte bukaeran, berriz, «Aiako harrira» igotzen dira. Kirol arloko jarduerak ez ezik, bertzelakoek ere badute beren tokia. Herriko datu historikoak, kulturalak eta bitxikeriak biltzeko *Ezagutu dezagun Lesaka* deritzon galde-egia egiten da, haurrei bideratua. Horrekin «herriko datuak bildu eta noizbait liburuxka bat egitea da asmoa». Ekaineko lehendabiziko igandean, berriz, pintura lehiaketa egiten da, «duela lau urte hasi ginen eta egia erran, hasieratik hagitz arra-

kastatsua izan da. Literatura zaleentzat «irakurketa taldea ere badago» eta ttikienek, ikastola eta eskolako haurrek «ipuin lehiaketan» parte hartzen dute. Halere, «pixkanaka-pixkanaka» zaletasun guztiek beren tokia izan dezaten, «jarduera gehiago sortzen ari dira». Berriki, «Mari Sol Irigoienek Bortzirietako emakumez osaturiko dantza taldea sortu du».

ZER IKUSI, HURA IKASI

Anaia zaharrenaren urratsak jarraitu ditu gaztetatik, «haren arrimuan sartu nintzen Beti Gazten, 13 bat urterekin». Momentu hartan, «anaia zuzendaritzan zegoen eta eskolatik ateratzerakoan, baserrira joan aitzinetik, ate-sareak kentzera, belarra segaz moztera... bidaltzen ninduen». Kuadrilan ere nahiko mugituak izan direla kontatu digu: «antzerkiak, aizkora apustuak, koadrilako bestak, bertso saioak... egiten genituen. Atera kontuak, *Zakuto, mil paridas por minuto* izeneko aldizkari baten lau ale ere editatu genituen, orain, galdu izanaren pena handia dugu». Gogoa izatea eta herria maitatzea nahikoak omen dira ekitaldi guztien erdian ibiltzeko. Maiaren kasuan, «Lesaka hagitz maitea izaki, saltsa guztietan» ibiltzen dela erran digu: «hagitz nekatua egonagatik, ekitaldia akitu orduko indarberritu eta hurrengorako prest egoten naiz».

Erabili TTIPI TXARTELA
pegatina hau ikusten duzun denda eta zerbitzuetan

probextu aukera!

ITURBENA
ONGI PASA FERIAK
kafetegia

Koskontako bidea 5, behea - LESAKA



BIANDITZ
NEKAZARIEN ETXEA



DIVA
PENTSU
EKOLOGIKOA

Eskualdeko banatzaile ofiziala




etxerako behar duzun guztia

PENTSUAK • FORRAJEAK • LANDAREAK • ABONOAK
FITOSANITARIOAK • PLASTIKOAK • PATATA HAZIAK
BOLOEN PLASTIKOAK • BASERRIRAKO TRESNERIA...

Etxez etxeko zerbitzua

Zalain ind. 5 • BERA | T. 600 977 339 | bianditzpentsuak@gmail.com

BORTZIRIAK

GIZARTEA → URRIAREN 30EAN ETXALARREN

Kontziliazioarako IV. Itun Mankomunatua sinatu dute hainbat eragilek



UTZITAKO ARGAZKIA

Ituna sinatu duten erakundeetako ordezkariak, Etxalarko Herriko Etxean.

Gizarte
Zerbitzuen
Mankomunitateak
sustatua

TTIPI-TTAPA

Bortzirietako Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatearen esparruan lan egiten duten entitateen eta eragileen arteko Bizitza pertsonala, familia eta lana uztartzeko Bortzirietako IV. Kontziliazio Itun Mankomunatua (2018-2019) sinatu dute urriaren 30ean Etxalarren. Pro-

zesua eta Ituna, Nafarroako Berdintasunerako Institutuaren finantziarioarekin gauzatu da eta Etxalarren aholkularitza teknikoak izan du.

Itunak dioenez, «emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna XXI. mendeko erronka nagusietakoa da. Lan arloa, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko oinarrizko esparruetako bat da. Gure gizartean, familiako eta etxeko erantzukizunak emakumeen eta gizonen artean bertze modu batean

banatzea, eragozpenik handienetakoa da emakumeak lan arloan erabat murgiltzeko, merkatu horretan irauteko eta gora egin ahal izateko. Ondorioz, lana sexua-
ren arabera bereizten da, eta bizitza publikoan eta pribatuan emakume edo gizon izatearen arabera da beraien presentzia».

Hori dela eta, itunaren sinatzaileen ustez «nahitaezkoa da emakumei eta gizoni beren lanaren, familiaren eta bizitza pertsonalaren kontziliazioa erraz-

tea, lana antolatzeko bertze moduak bultzatuz, giza baliabideak bertze kudeatuz, eta administrazioetan eta enpresetan lan baldintzak hobetuz. Baina, batez ere, pentsamoldeak aldatu behar dira, kontziliazioa ez baita emakumei berariaz eragiten dien gatazka, guztiok inplikatzeko gai-tuen beharra baizik. Zainketaren etikaren garapena bultzatu behar dago, horixe baita berdintasuna sustatzeko gakoetako bat, eta bereziki, kontziliazioa

erraztuko duen tresna».

Ituna sinatu duten erakundearen artean, Arantza, Bera, Etxalar eta Igantziko Udalak, Bortzirietako Euskara Mankomunitatea eta Bortzirietako Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea, Cederna Garalur elkarteak, ELA eta LAB sindikatuak, Lesakako Irain Eskolako Guraso Elkarteak, Lagunekin Jolasean elkarteak, Lesakako EHBildu eta Berako Rikardo Baroja eskola publikoa eta Toki Ona institutua daude.

ABENDUAREN 10A BITARTE

Sei artisten eskultura eta margolanak ikusgai Irisarrin

TTIPI-TTAPA

Juan Carlos Pikabea, Ana Mari Marin eta Javier Sagarzazu margolarien eta Pedro Lanz, Lesagibel eta Iñigo Manterola eskultoreen lanak biltzen dituen *Artea bizitzeko eta amets egiteko* erakusketa ireki dute Igantziko Yrisarriko jauregian azaroaren 4tik abenduaren 10era.

Azaroaren 4an ireki zen erakusketa, Elizondoko abesbatza ttikiaren

kanpuekin. Aitzinetik, azaroaren 3an egin zuten aurkezpen ekitaldia Yrisarriko behatokian. Prentsaurrekoan mintzatu ziren Joxe Elgorriaga Irisarri Land parkeko kudeatzailea eta erakusketan parte hartzen duten artistak.

Juan Carlos Pikabeak aipatu duenez, *Artea bizitzeko eta amets egiteko* izenburua jarri diote erakusketari, izan ere, «zer litzateke bizi-



UTZITAKO ARGAZKIA

Erakusketan parte hartzen duten artistak, Irisarri Land-eko arduradunekin.

tza ametsik gabe? baina ametsak errealtate bihur daitezten etengabe lan egin behar da. Umeak garenean, de-

nok ditugu amets haundiak, baina helduak egiten garenean, orduan mantendu behar dugu bizirik denok barnean

daramagun ume hori, porrotari beldurrik izan gabe... Amets egiteari uzten diozunean, bizitzeari uzten diozulako».

GIZARTEA → NAFARROAKO PARLAMENTARIEN BISITA

Instalazioak lehentasunez erabiltzeko babesak eskatu du R. Baroja eskolak

2011ko akordioan adostutakoa baino gehiago erabiltzen direla uste du

TTIPI-TTAPA

Ricardo Baroja Eskola publikoak Nafarroako Parlamentuari babesak eskatu dio bere instalazioak lehentasunez erabiltzeko eskubideari eusteko, Labiaga ikastolarekin 2011n sinatu zen lagapen-akordioan ezarri bezala. Nafarroako Parlamentuko Hezkuntza Batzordeak bisita egin zuen eskolara urriaren 25ean, PSN talde parlamentarioak eskaturik.

Udala Labiaga ikastolaren alde lerratu dela salatu du eskolako zuzendaritza taldeak, ikastetxe publikoko pilotalekua eta patioak erabiltzen utzi baitio «hezkuntzako araudian ezarritako mugen gainetik eta Nafarroako gobernuen oniritziarekin».

Testuinguru honetan, 2011n lortutako akordioarekin «ados» dagoela azpimarratu du eskolak. Orduan, «bizikidetzaren mesedetan», onartu zen pilotalekua uztea ikastolako gorputz-hezkuntzako eskoletarako, baina orain ikastolak DBHko 3. eta 4. mailak irekitzeko asmoa du eta «ezinegona areagotu da. Ez gaude haiek 3. eta 4. mailak ematearen aurka, gure patioak erabiltzearen aurka baizik. Ez gaude inolako hezkuntza ereduren aurka. Geurea defendatu baino ez dugu egiten, uste baitugu arazoak biderkatu egingen litzatekeela, izan ere gero eta ikasle gehiago ditugu eta lekurik gabe gelditzen ari gara», nabarmendu dute.

Azaroaren 25ekoak

Bortzirietako Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak azaroaren 25eko Emakumeenganako Bortizkeriaren Kontrako Nazioarteko Egunaren harira, zenbait ekitaldi antolatu ditu. Azaroaren 24an, ortziralean 19:00etan Beralandetan *Emakumearen aurkako bortizkeriaren inguruko protokoloak* solasaldia eskainiko dute Goldatz Berako Emakume Talde Feministak eta bertze bi eragilek. Egun berean, goizeko 10:30ean elkarretartzea egingen dute Toki Ona institutuan.



UTZITAKO ARGAZKIA

Mugadantza estreinatu dute aurten mugalarreen hitzarmenean

Bera, Etxalar, Azkain, Biriato, Sara eta Urriñako udalek bartz urtero berritzen duten fazeien edo mugalarreen hitzarmena sinatu dute urriaren 28an. Lizuniagan, Sara eta Bera arteko 36. mugarrin dagoen Mahain-harrian. Zenbait berrikuntza ere izan du aurtengo hitzarmenak. Orain arte, herri hauetako abeltzainen ardi eta zaldi aziendek eskubidea zuten bertze herrietako bazkalekuak eta urak aprobetxatzeko. Urriaren 28tik aitzinera, behi aziendak mugatik alde batetik bertze ibiltzea ere onartzen da. Bertetik, abeltzainek ardura zibileko aseguruia izan beharko dute aziendek eragindako istripuez babesteko. Bertze berrikuntza handia, argazkian ageri den *Mugadantza* dantzatu zuen Ainhoa Reategi dantzariak, Mahain-Harriaren gainean, Gaizka Sarasolak txirula eta ttuntuna jotzen zuen bitartean. Bereziki ekitaldi honetan egiteko sortu eta proposatutako dantza da *Mugadantza*, Lesakako Martxel Rodriguez dantzariak eta Gaizka Sarasola musikariak sortua, Asier Gogortzaren ideari segituz.

roaren 24an, ortziralean 19:00etan Beralandetan *Emakumearen aurkako bortizkeriaren inguruko protokoloak* solasaldia eskainiko dute Goldatz Berako Emakume Talde Feministak eta bertze bi eragilek. Egun berean, goizeko 10:30ean elkarretartzea egingen dute Toki Ona institutuan.

Bigarren eskuko merkatu ttikia

Bigarren eskuko merkatu ttikia antolatu du Labiaga ikastolak azaroaren 19an. Igan-dean, 09:00etatik 14:00etara jartzen ahal

dira postuak Altzateko frontoian. Postuajartze-ko interesa dutenek ikastolara deitu (948 630172 telefono), eta 10 euro ordaindu beharko dute.

Emitza taldearen emanaldia

Emitza antzerki taldeak *La buena, la mala, la ergela y la madre que las parió* antzezla eskainiko du azaroaren 18an eta 19an, larunbatean eta igandean 19:30ean Kultur Etxean, gaztelaniaz. Kultur Batzordeak eta Udalak antolatutako emanaldia ikusteko 3

euro ordaindu beharko da (aitzinetik Agara prentsa-dendan eta egun berean leihatilan).

Inma Uranga, Marian Yanci, Inma Danboriena eta Dominica Mercadal antzezleak izanen dira taula gainean.

Kafe Antzerki Zikloaren azkena

XIX. Kafe Antzerki Zikloko azken emanaldia eskainiko dute azaroaren 17an, ortziralean 22:00etan Bidaxka ostatuan. Jon Martin, Xamoa, Andoin Iturbide eta Eñaut Gantxegik *Espuela nahi?* antzezla eskainiko dute.

BAR Botxo OSTATUA
Zalain • BERA • 948 630 052

xuga
tel. 948 631 519
www.xugabera.com
www.facebook.com/xugabera

Profesion
Vandorren
ERRANDONEA, S.L.
BILTEGIA 948 630 102
ANDER 687 736 929
Bidaxoa, 76 - atea 21-22
31780 BERA

JAIONE-COXOTEGIA
948 630 786
Alzate, 21 • BERA

LESAKA

OSPAKIZUNAK → AZAROAREN 24 ETA 25EAN

Santa Zezilia ospatuko dute herriko musika taldeek

Kontzertuak eskainiko dituzte Harriondoan

Aitor AROTZENA

Azaroaren 22an Santa Zezilia ospatzen da eta musikarien Eguna-ren harira, zenbait emandaldi antolatu dituzte herriko musikariek. Le-

sakako Santa Zezilia Batzordeak antolatzen ditu ekitaldiak, aurtengoan Lesaka Trikitixa taldearen gidaritzapean.

Azaroaren 24an, ortziralean 20:00etan akordeoilariek, abesbatzak eta musika bandak eta azaroaren 25ean, larunbatean 18:00etan txistulariek eta trikitilariek kontzertuak eskai-



ARGAZKIA: AITOR AROTZENA

Burdinaren Martxaren 25. urteurrena gogoratu dute

Bizkaiko Labe Garaien itxiera (Azterketa kritikoa eta testigantza) hitzaldia eskaini zuen Xabier Barrutia Etxeberria, Euskal Herriko Unibertsitateko katedratiko eta ekonomia-doktoreak Harriondoan urriaren 27an eta hainbat lagun bildu ziren aditzera. Ondotik, leku berean asteburu osoan ikusgai izan zen erakusketako atea zabaltzeko: argazkiak, prentsa agiriak, bideoak eta bertze hainbat material bildu zituen garai bateko Laminaciones-ko langileek prestatutako erakusketak eta jende aunitz pasatu zen Kultur Etxeko komentutik.

niko dituzte Harriondoa Kultur Etxean.

Eguna behar bezala

borobiltzeko, 14 urtetik goitiko musikariek aforia izanen dute larunbat

horretan Kasinoan eta 13 urtetik beheitikoeek luntxa Arranon.

AZAROAREN 25EAN

Zerbitzuen Elkarteko tonbolako sariak emanen dituzte

A.A.A.

Lesakako Zerbitzuen Elkartek tonbola antolatu du aurtun ere Udalaren eta Nafarroako Gobernuaren laguntzaz. Elkarteko dendetan egindako erosketen truke banatutako txar telekin sariak (4.000 euroko balioa dutenak) eskuratu ahal izateko, azaroaren 25ean aterako dituzte zenbakiak, 19:00etatik aitzinera plazan. Giroa goxatzeko eta elkarrearen hamargarren urteurrena ospatzeko txokolate beroa ere eskainiko da.

GIZARTEA → TANTIRUMAIRU IKASTOLAREN ESKUTIK

Oinez Basoaren aldeko kanpaina abiatu da

11.000 zuhaitz landatuko ditu Udalak Frain inguruan

A. AROTZENA

Urriaren 15eko Nafarroa Oinez-ari esker posible izanen da Tantarumairu Ikastolak zituena helburuak betetzen hastea. Horiek gauza zuten hasteko lehen urratsa eman zen besta egun bikain hartan, baina oraindik ere auzolanean segitu beharko du ikastola helburu hori lortzeko. Bide horretan, Ikastola laguntzeko eta ingurumena eta natura zaintzeko, *Bikin bat in,*

bertze aukera bat ere izanen da: Oinez Basoa babestea.

Frain eta Ziobi inguruetako 10 Hektareatan, 2015eko abenduan erretako eremu batean 11.000 zuhaitz (bertako haritza, gerezi, lizarra, astigarra, urkia, Atlas zedroa eta pinus taeda) landatuko ditu Udalak, orain arteko Oinez Basorik handienez, eta horietako bat babes daiten 10 euroko bono-laguntzen bidez.

Udalak hartuko dituzten bere gain bai landaketa baita mantentze-lanak ere, eta, Nafarroako Gobernuak deialdiko eskakizunak beteta gauzatuko ditu. Lurrak

nahiz baso berriak Udalarenak izaten segituko dute, baina Tantarumairu Ikastolak eta Ikastolen Elkartek (NIE) basoa erabili ahal izanen dute helburu didaktiko eta dibulgaziozkoekin, horretarako Oinez Basoaren Sarean sartuta.

Oinez Basoan ekarpen bat egiteko konpromisoa hartu du Tantarumairu ere. Ekarpeneren izaera landaketa bukatu eta gero erabakiko da inguruneak eskaintzen dituen aukerak kontuan hartuta, baina, aurreikusten da aisialdirako, proiektuaren dibulgaziorako eta hezkuntza-jardueretarako espazioa izanen dela.

FLASH

Bertso eskola Zahar Etxean

Bortzirietako Bertso Eskolak antolatuta, Andra Mari Zahar Etxean bertso saioa eskainiko dute ikasleek azaroaren 18an, larunbatean 17:00etan.

Argazki lehiaketako lanen erakusketa

Beti Gazte elkarteak antolatutako argazki lehiaketara aurkeztutako lanekin erakusketak irekiko da azaroaren 10etik 30era komentuko elizan.

Emakumeen aurkako indarkeria

Azaroaren 26an, igandean 18:00etan *Desatrapadas* dokumentala eskainiko dute Harriondoako Zumarra gelan.

GIZARTEA → PIRINIOETAN USO GEHIEN HARRAPATU DUTENEK EGITEN DUTE

Sasoia bukatu orduko altxaferoa botatzeko itxaropena dute usazaleek

Hilaren 7rako 91 dozena pasa harrapatuak zituzten

Irune ELIZAGOIEN

Denboraldia nahiko motel hasi bazuten ere, egunak aitzinera joan ahala, eguraldia lagun, usoa pasatzen hasi ziren. 12 usazaleak bertan daude eguna joan eta eguna etorri, ahalik eta uso gehien sareetan sartu daitezten. Eguraldi ederra den egunetan jendearen joan etorria nabarmena da eta sare inguruan ikusmin handia sortzen da.

Alde horretatik, aipatzekoa da azaroaren 7an ETB2ko *Juego de Cartas* programakoak Usategietan grabatzen egon zirela.

Ohiturari ertsiz, Lاندagain eskolako ikasleak ere usategietara joan ziren azaroaren 3an. Bertan Laura Elizagoien azalpenak jaso zituzten eta egun polita pasa zuten.

Larraburuko ekintzak

Urtero bezala sukaldaritza ikastaroa egiten da Larraburuan. Hamabortz lagunek izena eman dute eta azaroaren 10ean hasiko dute ikastaroa. Klaseak Iñá-

ki Pikabeak emanen ditu 8 astez. Bertetik, altxarien zaharberitze ikastarorako 9 lagunek eman dute izena eta Noe Santiagorekin hasiko dute ikastaroa azaroaren 18an arratsaldeko 16:00etan. Hau ere zortzi astez luzatuko da, egun bakoitzean hiru orduko iraupena izanen duelarik.

Nafarroako automobilismo federazioa

Nafarroako automobilismo federazioak antolatuta, abenduaren 16an goizeko 11etan Etxalarko Benta Hotelean 2017ko Nafarroako txapelketan sari ba-



ARGAZKIAK: LAURA ELIZAGOIEN
Telebista eta eskolako ikasleak usategian.



Ba al zenekien

Alvaro Bermejo Donostiako idazleak *Como el bosque en la noche* nobela berria argitaratu duela? Istorioa Etxalarren kokatuta dago, bertako bi ahizpek ustekabearen egindako delitu baten inguruan.

naketa izanen da. Ekitaldi hau Nafarroako automobilismo federazio-

ko kirolarien eta haien familia eta lagunei erreserbatutakoa izanen da.



ARGAZKIA: ANA INDABURU

Kanposantua lorez apaindurik

Azaroaren 1eko ohitura mantenduz, herritarrek lore aunitz eraman zituzten hilerrira, familiakoen hilotziak apaintzeko.



ARGAZKIA: LEIRE TELLETXE

Oraingoan bai, bukatu da 'Karmen Etxalarkoa' Pastoral

Azaroaren 5eko Elizondoko emanaldiarekin bukaera eman diote etxalartarrek *Karmen Etxalarkoa* pastoralaren proiektuari. Urte luzeko lanaren ondotik, Etxalarko bi emanaldi eta Elizondoko azken honekin gustura geratu dira arizale eta antolatzaileak.

okaNe
HARATEGIA / URDAITEGIA
Enaut & Nekane

Kanttonberri 12 · BERA
T./Fax: 948 630 018

LABE ZAR
Tel: 948 631 076 · BERA

ARANTZA

GIZARTEA → UDALAK ANTOLATUTA

Oibarko Aritza abesbatzak kontzertua eskainiko du azaroaren 25ean

Fernando Otanoren zuzendaritzapean ariko dira

Nerea ALTZURI

Dagoeneko herrian ezaguna den Fernando Otano gurean izanen du gu azaroaren 25ean, berak zuzentzen duen Oibarko Aritza abesbatzak kontzertua eskainiko baitu eskolako gimnasioan, 19:30ean hasita. Udalak antolatu du eta sarrera dohainik izanen da.

Historia luzea duen abesbatza da, herriko nahiz inguruetako kultur ekitaldietan maiz parte hartzen duena. Baina hondarreko urteetan, Euskal Herrian ez ezik, espainiar estatuan ere kontzertuak eskaini izandu ditu, baita Sahararen eta Kamerunen aldeko elkartasun kontzertuak ere.

Emakumeen aurkako indarkeria

Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Eguna da azaroaren 25a, eta gure herrian ere aldarria karrakara ateratzeko aukera izanen da. Azaroaren 24an, Udalak deituta, kontzentrazioa egingen da plazan, 12:00etan. Bertzalde, hau ere azaroaren 24an, *Desatrapadas* dokumentala ikusteko aukera izanen da 19:30ean eskolan, Bortzirietako Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak antolatuta.

Janari bilketa

Aurten ere behartsuen alde lanean ari den Paris365 Fundazioari laguntzeko janari bilketa antolatu dute azaroaren 17rako. Jatekoa kooperatibaren bilduko dute, 10:00etatik 12:00etara eta 16:00etatik 18:00etara.



ARGAZKIAK: NEREA ALTZURI ETA AITOR AROTZENA

Serorenbordako gazta eta Simoneko aharia garaile azaroaren 1ean

Eguraldi ederra lagun, jende aunitz ibili zen azaroaren 1ean Ekaitza Elkarteak antolaturiko XXII. Baseritarren Egunean. Barazkiak, zerriak, eskulanak, taloak, egutegiak, kamisetak, tresnak, eskulanak... Herriarrek 27 salmenta eta erakusketa postu paratu zituzten. Bertzalde, urtero bezala, ostatuan edatekoak eta pintxoak eskaini zituzten. Goiza girotzen herriko trikitalari eta panderojoleek aritu ziren. Gazta lehiaketan, Serorenbordako Margari Madariagak eskuratu zuen lehenbiziko saria; bigarren saria Otsarrako Mari Jose Larretxeak eta hirugarrena Laraburukobordako Esther Elizondok. Ahari lehiaketan, lehenbiziko saria Simoneko ahariak lortu zuen eta bigarrena Julio Lukanbiorenak. Bertako produktuez osaturiko zarearen zozketan Sonia Iturria izan zen saritua. Baina ez zen hori izan Kultur Egunetako hitzordu bakarra. Urriaren 28an, *Baga, Biga, Higa* emanaldian, eskolako gimnasioa tiki gelditu zen. Biharamunean, *Putinen guardasola* antzezlanak ikusteko jende aunitz bildu zen. Antzerkiaren aitzinetik, helduentzako mus txapelketa eta gaztetxoentzako partxis lehiaketa jokatu zituzten. Musean txapeldunak Imanol Mitxelena eta Dani Iparragire izandu ziren; eta txapeldunordeak Jon Alzuri eta Iñaki Gamon. Partxisean, Xuban Taberna eta Enaut San Juanek irabazi zuten eta txapeldunorde Ane Larralde eta Irati Azpiroz gelditu ziren. Azaroaren 1ean Ameli ipuin kontalariaren saioarekin eta Guraso Elkarteak emaniko berenduarrekin agurtu zituzten kultur egunak.

Caser
RESIDENCIAL

Caser ANAKA,
ospatu gurekin gure
15. urteurrena

Abenduaren 11tik 15era ekitaldi bereziak

ANAKA | Anaka, 8 - IRUN | Tel.: 943 667 780
BETHARRAM | Zubieta, 161 - HONDARRIBIA | Tel.: 943 647 169

Egonaldi motak

- Egonaldi iraunkorrak
- Aldi baterako egonaldiak familiarren atsedenerako
- Erreabilitazioa, operazio ondokoak eta gaixondoak
- Alzheimerra eta bestelako demenziak dituzten gaixoentzako egonaldiak
- Eguneko zentroak, 365 egunetan irekita

ZATOZ ETA INFORMA ZAITEZ !

www.caserresidencial.es

GIZARTEA → ETB2N ETA NAVARRA TELEVISION-EN AGERTU DIRA

Herritarrak protagonista izan dira telebistan

‘Historias a bocados’ eta ‘Cara a cara’ saioetan elkarrizketatuak

Maider PETRIRENA

‘Historias a Bocados’ programa zuzentzen duen Ander Gonzalez Sunbillan egon zen, zenbait bizilagunek azaldu zizkioten gastronomia kontuak ezagutzen. Horretarako hiru sunbildar elkarrizketatu zituen:

Jesus Mari Jorajuria Arretxeak 68 urte ditu eta 17 urte zituela Estatu Batuetara artzai joan zen, garai haietan egiten zen soldaduxka ez egiteko. 9 urte pasa zituen bertan, 5 urte artzai moduan Kalifornian eta 4 urte berriz Wyoming-en igeltsero bezala. Jesus Mari Anderri Ameriketara ilarrak lur azpian nola egiten ziren kontatu zion.

Arkaitz Bizente Urkijo gazteak Idiazabalen izendapenean gaztak egiten ditu bere etxean

dauzkan ardiekin. Ardi bat umatzeko dagoen edo ez nola jakiten duten erakutsi zion Arkaitzek Anderri. Horrez gain ere artaldeari jate-eman eta nola ez Lizun gaztandegira sartu ziren bertan gazte etiketara jartzera. Ondoren gazten dastaketa egiteko aukera ere izan zuten.

Ariztigain kanpinetako Mari Koro Paskual Alzurik gure herriko kanpinako instalazioak erakutsi zizkion, baita bertan dauden 100 urteko haritzak ere. Anderrek hori ikusita konprobatu zuen zergatik etortzen diren kanpinera bezeroak, beraien oporrak eta asteburuak pasatzera. Horrez gain aukera izan zuen Anderrek Sunbillako gastronomian famatuak diren kanutilloak dastatzeko. Gozatu ederra hartu zuen gazta, ilarrak eta kanutilloak jaten.

Programa ikusteko aukera izan zen urriaren 29an eta hagitik polita izan zen. Zorionak.

BULARREKO MINBIZIAREN LEKUKO

Navarra Televisioneko *Cara a Cara* programan, urriaren 24an Niebes Biurrarena Maia elkarrizketatu zuten eta pasatu duen bularreko minbiziaren esperientzia kontatu zuen. Honez gain Niebes, Sarayeko (Bularreko minbiziaren elkarte) kidea da eta Sarayek antolatzen dituen ekitaldietan parte hartzen du bertze herritar batzuekin batera.

Zorionak egindako elkarrizketarengatik.



UTZITAKO ARGAZKIAK

Jesus Mari Jorajuria, Arkaitz Bizente eta Mari Koro Paskual goitian. Beheitian, Niebes Biurrarena.



aterpe
albergea jatetxea ostalua
T. 948 634 179
ARANTZA
www.arantza.net
en: casa llauteria

E D A R I A K

MANUEL TABERNA S.L.
Bidasoa, 76 - 31780 BERA (Nafarroa)
Tel.: 948 63 10 27 - Fax: 948 62 52 11
tabernabera@gmail.com
www.tabernaedariak.com

ZUMARBEL
creaciones metálicas
Igantzi (Navarra)
948 63 74 11

Lehen A.T.M. S.A
Berrizaun 25,
31790 IGANTZI
T. 948 63 74 11
@zumarbel@hotmail.com
www.zumarbel.es

DONEZTEBE

GIZARTEA → GENERO INDARKERIAREN KONTRAKO EKIMENEN BARRENEAN

'Nagore' dokumentala eskainiko dute hilaren 24an

Nagore Laffageren ama ere izanen da hizlari

Marga ERDOZAIN

Nagore Laffage bortizki hil zuten duela berderatzi urteko Sanferminetan eta Nagore dokumentala eskainiko dute azaroaren 25eko ekimenen barrenean.

Azaroaren 24an, ortzirale arratsaldeko 7etan, Herrigunean Nagore dokumentala ikusteko aukera izanen da. Bertan Asun Casasola (Nagoreren ama) izanen da, bere bizipenak konpartitzeko. Hitzordua borobiltzeko, II. Udazken Literario zikloaren barrenean, Miren Lantzek *Gogoratzen nauzuenetan* ipuin lehiaketa



UTZITAKO ARGAZKIA

Euskal Herria, Eskozia eta Katalunia hizpide

Aunitz eskuetan taldeak antolatutako mahainguruan Patxi Castillok galderak luzatu zizkien Eskozia (Imanol Ibarrola), Katalunia (Silvia Formontti eta Bego Olaizola) eta Euskal Herriko (Anjel Oiartzabal) bozketen egoeraz solasteko.

Ba al zenekien

Abenduaren 23an Olatz Zugasti musikaria eta bere taldearen emanaldia gurean izanen dugula. Apuntatu agendan.

tako liburuaren inguruko solasaldia eskainiko du. Liburu hori indarkeria matxistatik gabeko jendartea irudikatzen

ahalegin kolektiboa da. Auzolana eta herritar izaera ditu zutabe eta Nagore Laffage eta patriarkatuaren biktima

izan diren emakume guztiak gogoan izan nahi ditu. Duela 9 urte Nagore Laffage hil zuten. Ordutik, izugarria izan da haren amak, Asun Casasolak, erakutsitako indarra eta kemena. Bere izena duen Ipuin Lehiaketarekin Asun omendu dute Irungo hainbat eragilek.

Genero Indarkeriaren kontrako ekimenen barrenean ere kokatu behar da egun horretan eguerdi aldera eginen den bilkura. Ohiko hitzordu horretan herritarrek, Mendaur Institutuko ikasle eta irakasleak eta Malerrekako herriko etxeko hautetsiak parte hartzea deitu ditu Malerrekako Mankomunitateko Prebentzio Batzordeak. Ekimen horiez gain, ikastetxeetan gaia lantzen ari dira.

FLASH

Hitzaldi-tailerra

Familia zaintzailea, estresari nola egin aurre egin hitzaldi-tailerra eskainiko dute azaroaren 16an, 16:30etik 18:30era Mankomunitateko egoitzan, doan. Antolatzaileak AFAN (Alzheimerre gaitza duten Senideen elkarte) eta Malerrekako Osasun Etxea dira.

Errekaren saskia

Aurten ere Errekak bere saski paregabea osatu du eta boletoko salgai paratu ditu. Zozketa abenduaren 20an izanen da.

Inzakardi karrika

Erdigune historikoan dagoen karrikan hainbat obra egiten ari dira, herritarren mugikortasuna hobetzeko. Espaloiak zabaldu eta bide-gorri eta Intzakardi parkera joateko lotura ere hobetu nahi da. Ikastetxeetara oinez joateko ibilbidea errazagoa izanen da eta ibilgailuen zirkulazioa ere hobetu nahi da.



ARGAZKIA: MARGA ERDOZAIN

'Robotak gure munduan' proiektua aurkeztu dute Iruñean

San Miguel ikastetxeko Itziar Irigoien, Leire Mariezkurrena, Maider Irzoqui eta Sara García irakasleek LHko 2. mailako haurrekin landutako *Robotak gure munduan* proiektua aurkeztu dute Iruñean azaroaren 8an, Nafarroako Eskola Kontseiluak antolatutako XX. Berrikuntza proiektuen aurkezpen jardunaldietan. Deialdira Nafarroa osoko 80 proiektutik goiti aurkeztu ziren eta guzti horien artean zortzi aukeratuak izan dira aurkezpen saioetarako.



Salmenta - Alokairua - Aholkularitza
Bordak - Etxeak - Baserriak - Lokal komertzialak
Hiri eta landa-lursailak
Garajeak
Balorazioak
Salerosketa eta alokairuen kudeaketa

ORDUTEGIA
Astelehenerdik ortziralerara 10:00-13:30 / 17:00-20:00
Larunbatetan 10:00-13:00

Eliza kalea, 22 DONEZTEBE
T. 948 451 337 | 685 153 665 | 667 275 013
sabaia@sabaiaimmobiliaria.com
www.sabaiaimmobiliaria.com

AGENTE
ESKLUSIBOA

Seguros
Bilbao



IBERDROLA
Bezeroen arretarako gunea

Energia
ziurtagiriak

Lan egunetan · 09:30-13:30 · iberdoneztebe@gmail.com



BERTSOLARITZA → LEHIAKETA BERRIA

Bertsokabi txapela herrira ekarri dute

Alazne Untxalo eta Egoitz Gorosterrazu txapeldun suertatu dira

taldeari, bilera batera deituko dio, aurre-proiektuan parte hartzeko.

Adiorik ez, Makuso

Azaroaren 1ean azken agurra eman genion Aurtizko bizilagun haundi eta ezagun bati, gure artetik joan baita Makuso txistularia. Bere bizian txistua eskuetan zuela Fermin atabalariarekin batera hainbat herritako besten iratzargailu izan zen. Gure eskualdean txistua irakatsi eta dantza taldeei musika jarri izan zion. Orain bere alaba Maribel eta iloba losuk jarraituko dute Makusok urte askotan erakutsitakoa. Doluminak

TTIPI-TTAPA

Urriaren 26an Iruñean jokatu zen Bertsokabi sariketako finala eta Alazne Untxalo eta Egoitz Gorosterrazu herri-tarrek lortu zuten txapela. Saioa bikaina izan zen eta denek gozatzeko aukera izan zuten botatako bertsoekin. Zorionak!

Eskola berria

Eskola berria dela eta, azaroan departamentuak zuzendaritza



ARGAZKIA: ESKOLAK UTZIA

Pulunpa eskolakoak Bertizen

Eskolako haur eta irakasleak Bertizera joan ziren eguna pasa azaroaren 3an. Haur Hezkuntzako eta 1.mailakoak Narbatetik oinez joan ziren; bertzeak, bertiz, Doneztebetik. Goizean, bi talde horietan banatuta, mendi itzulia egin zuten begirale batekin, azalpen interesgarriak eman zizkien eta proposatutako jokoe-tan parte hartu zuten. Arratsaldean, parkean jolasteko aukera izan zuten.



UTZITAKO ARGAZKIA

Mendaurko kaxkora igo da Enaitz, senide eta lagunek inguratuta

Enaitz Iparragirre Arretxeak Kemen persona ezinduen kirol klubaren laguntzaz lehen aldiz mendaurrera igotzeko aukera izan zuen urriaren 29an. Aspalditik burutan zuen bere familiak eta goizeko 9etan abiatuta, lagun eta senideekin inguratuta Mendaurrera igo ziren.

MERKATARITZA

TEEHn bilketa sustatzeko bilketa lehiaketa antolatu dute

TTIPI-TTAPA

Nafarroako Gobernuak, Tresna Elektrikoen eta Elektronikoen Hondakinak (TEEH) kudeatzeko sistema integratuen (SIG) entitate kudeatzailerak, eta Nafarroako Ingurumen Kudeaketak (GAN-NIK), Nafarroako hondakinen mankomunitateen eta Osasuna

Fundazioaren laguntzaz, TEEHen Bilketarako lehen lehiaketa antolatu dute, *TEEH-en bandaren bila gabiltza: lagundu harrapatzen* izenburupean.

Azaroaren 24tik abenduaren 1era, erabiltzen ez diren tresnak atxikitako establezimenduetan utzita laguntzen

duen pertsona bakoitzak sariak lor ditzake, hala nola erosketa-txartelak aipatutako den-dan horietan eta Osasuna futbol taldearen partiduetarako sarrerak.

Kanpainaren helburua, hondakin hauen kudeaketa zuzena egitea zein garrantzitsua den ezagutzera ematea da.



UTZITAKO ARGAZKIA

TEEHen bilketarako lehiaketaren Kanpainarako erabili den irudia.

ZUBIETA

GIZARTEA → IKASTAROA AZAROAREN 19TIK AURRERA

Dantza Luzea eta beste ikasten segituko dute

Hamabostean behin igande arratsaldetan

Fermin ETXEKOLONEA

Dantza Luzeari gus-toa hartu (42 dantzari atera ziren Euskararen Egunean) eta ikasten segitzeko asmoa dute batzuk. Azaroaren 19an hasiko dira ikastaroan. Hamabostetik ariko dira herriko estalpean, igande arratsaldeko 5:30etik aurrera. Dantza Luzeaz gain, Larraindantza eta Larrosadantza ere ikasiko omen dituzte, Bestaberri egunean, herriko festetan edo beste ospakizunetan plazaratzeko asmoarekin.



ARGAZKIA:
GOIENA.EUS

Emakumeen Master Cup txapelketan ezin izan du aurrera segitu Naroa Elizalde. Bi partidetatik bat irabazi eta bestea galdu egin du, baina tantoen aldearen-gatik kanpoan gelditu da.

Mieltxo Mindegia

Euskal Herriko bigarren mailako txapelketan laugarren izan ondoren, ostirale honetan

Nafarroako aizkora txapelketa nagusiko finalean ariko da Doneztebeko feria egunean, 18:00etan hasita.

URROZ

GIZARTEA → AZAROAREN 1EAN

Kanposantua lorez betea Domu Santu egunean

Testua eta argazkia:
Jaione ARIZTEGI

Aurten ere pasa da azaroaren lehen eguna, gure hildakoez oroitzeko azpimarratzen den Domu Santu egun berezia. Ohiturari jarraiki oraingoan ere kanposantua polita geratu da, familiakoek eta lagunek gure hildakoei eraman dizkiegun lorez eta apaingarritz beteta.



ELGORRIAGA

CAIXA BANK-EN GIZARTE EKINTZA

59 proiektu sozial lagundu ditu Baztan-Bidasoaldean

TTIPI-TTAPA


Azken bi urteetan 3,2 milioi euro baino gehiagoko ekarpena egin du Caixabankek Nafarroa osoan. Tartean, Baztan, Malerrea eta Bortzirietako 59 proiektu sozial 148.874 euroko diru-laguntzaz babestu ditu, Elgorriagako bainuetxean egindako aurkezpenean jakinarazi zuten.

Berako Elkarrian Boluntarioen Elkarte, Malerrekako Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea, Zahar Txokoa Jubilatuta Elkarte eta Arantzako udalari 50.000 eurotik gorako laguntza eman die.

Behar bereziko pertsonekin lan egiten duten erakundeentzat 40.000 euro baino gehiagoko ekarpena egin du. Onuradunak Baztango Udala (Mugikortasun urriko pertsonen Elizondoko igerilekuetarako sarbidea egiteko), Bortzirietako Guztio Taldea eta Xauli Boluntario Elkarte izan dira.

Adinduen arreta zerbitzuak ere babestu ditu. Arkupeak Elkarteko 2.600 bazkideri teknologia, osasuna eta ongizatea jorrotzen dituzten programa eta tailerrak eskaintzen dizkie; eta Etxalar eta Lesakako adinduen elkartei ere zenbait ekimenean lagundu izan die. Lesakako Andra Mari Zaharren Egoitzako geriatría-materiala erosteko eta altzarien zaharbertzerako 4.000 euro eman dizkie.

Hezkuntza arloan, Lesakako Tantarumairu ikastolako jantokirako eta Bortzirietako Euskara Mankomunitateak udan egindako kanpaldirako 10.000 euro eman ditu.



ARGAZKIA: JAIONE ARIZTEGI

Herriko emakumeak gimnasia eta dantzariak berriz ere lanean

Hasiak dira ortziraleroko hitzordua egiten herriko emakumeak. Talde bat bildu eta astero gorputza astintzeko aukera izanen dute negu guztian zehar hemendik aitzinera. Bertze aldetik, besten ondoko deskantsoa eta gero, berriz ere martxan dira herriko dantzariak. Horien hitzordua larunbatetan izaten da, eta oraingoan eguberrietarako dantzak prestatzen dabilta.



K O M U N A K

Etxe-tresnak
Pareta-armairuak
Sukalde eta bainugelako altzariak

S U K A L D E A K



T. 948 450 925
M. 677 525 292 • 677 525 324
Amezti zeharkarrika, 1 • DONEZTEBE



**POLIURETANOZKO
BABES ETA
INJEKZIOZKO
ISOLAKETA**

AISLAN-LEITZA, s.l

618 915 943
Santa Luzia pasealekua, 4 B Behea
Butintxuri · IRUÑA
aislanleitza@yahoo.es



larreta lanak s.l

**IGELTSU PROIEKTUA
PLADUR LANAK**

Bera - Nafarroa
larretaigeltsua@gmail.com
larretalanak.com

Gorka Arretxea 627 225 514 Juanen Saraleg 637 921 299

Gestel

- TDT instalazioak
- TB instalazioak (satelite, lurrekoak)
- Instalazio indibidualak eta kolektiboak
- Satelite bidezko interneta
- Internet konexio simetriko ultralasterra

K SAT
TELEKOMUNIKAZIOAK

ANDONI LASAGA APEZTEGUIA
T. 637 40 86 40 · 31780 BERA
andonimatxako@gmail.com

EZKAIN eraikuntzak S.L.



Lizarraga, 3 • LEITZA
M. 650 910 868 • 650 910 867
T/F. 948 610 956 • 948 610 956
ezkain1@gmail.com

ETXEAK ZAHARBERRITZEKO LAGUNTZAK

2016ko datuak: ETXEBIZITZEN ZAHARBERRITZE ESPEDIENTEAK

Herria	Espediente kop.	Etxebizitza kop.	Aurrekontua	Diru-laguntza
ARANO	0	0	0,00	0,00
ARANTZA	2	2	136.587,94	37.592,48
ARESO	0	0	0,00	0,00
BAZTAN	11	21	448.694,60	119.466,65
BEINTZA-LABAIEN	0	0	0,00	0,00
BERA	0	0	0,00	0,00
BERTIZARANA	0	0	0,00	0,00
DONAMARIA	1	1	11.870,00	4.784,04
DONEZTEBE	1	19	82.214,85	36.693,59
ELGORRIAGA	0	0	0,00	0,00
ERATSUN	2	2	30.765,00	12.306,08
ETXALAR	3	3	36.632,00	11.618,08
EZKURRA	0	0	0,00	0,00
GOIZUETA	0	0	0,00	0,00
IGANTZI	0	0	0,00	0,00
ITUREN	0	0	0,00	0,00
LEITZA	6	60	602.621,90	130.329,25
LESAKA	10	48	472.723,47	148.638,18
OIZ	1	1	30.846,00	12.338,40
SALDIAS	0	0	0,00	0,00
SUNBILLA	5	9	175.167,50	70.999,15
URDAZUBI	0	0	0,00	0,00
URROZ	0	0	0,00	0,00
ZUBIETA	1	1	54.986,89	21.994,76
ZUGARRAMURDI	1	1	29.820,00	11.928,00
Denetara	44	168	2.112.930,15 €	618.688,66 €

2016an (ikusitako taula) 618.688,66 euro hartu ziren hor ageri diren herrien artean etxe-ak zaharberritu edo hobetzeko. **2017an, ordea, diru kopuru hori gainditu da urri hasierarako, 714.261 euro onartuak baitziren ordurako.**

Eskaerak, obrak hasi baino bi hilabete lehenago egin behar dira

Aurten iaz baino laguntza gehiago eskatu/hartuko da

2016ko bukaeran Nafarroako Parlamentuak **etxe - bizitzetarako laguntza** Foru Lege berria onartu eta ondorioak berehala nabaritu dira 2017an: tramitatu diren espedienteak bikoiztu egin dira eta, horrekin batera, eskatu eta hartu den diru kopurua ere nabarmen hazi da. Seguruenik 2018an ere gora egingen du kopurua. Dena den, laguntza eskatzeko asmoarekin dabilenak jakin behar du **obra hasi baino bi hilabete lehenago egin behar duela eskaera.**

ESKATZAILE IZATEKO BALDINTZAK?

- Etxebizitza ohiko bizitoki iraunkorra izatea.
- Eraikinak 25 urte baino gehiago izatea.
- Aurrekontua etxebizitzako 6.000 eurotik gorakoa izatea (3.000 euro, obra desgaitasuna duen pertsonentzako egokitzeko baldin bada).
- Obrak hasi gabe egotea. Behin-behineko kalifikazioa egiten denetik, obra 6 hilabeteko epean hasi eta 36 hilabeteko gehienezko epean bukatzeko.
- Diru-laguntza emanen da eskatzaileak duen ponderatutako familiako diru-sarreraren, haren adinaren eta etxearen antzintasunaren arabera.
- Maileguak eska daitezke (Ikusi baldintzak).

Nasuvinsak tramitatzen ditu Baztan, Bertizarana, Bortziriak eta Malerrekan etxe-ak zaharberritzeko laguntzak

948456103 DONEZTEBE

Arano, Areso, Goizueta eta Leitzakoek, Leitzako Udalean dute hortaz arduratzen den bulegoa

948510009 LEITZA

DIRU-LAGUNTZAK ZERTARAKO?

Diru-laguntzak izaten ahal dira bai bizitokiaren barneko obrak egiteko baita etxearen elementu komunitarioak (teilatua, eskailera, fatxada...) zaharbertzeko ere:

- **Eraikinaren egitura edo funtzionamendua egokitzeko** (teilatua moldatu, fatxadak, igogailu jarri, instalazioen berrikuntzak, elektrizitatea, iturgintza, ...).
- **Eraginkortasun energetikoa hobetzeko** (isolamenduak, berokuntza sistema jarri edo aldatu, gal-dara aldatu, leihoak aldatu, ...).
- **Irisgarritasuna hobetu oztopoak kenduz** (elbarriendako oztopoak, adinekoen oztopoak...).
- **Bizigarritasun baldintzak hobetzen dituzten etxe-barneko obrak** (bainera kendu eta dutxa jar-tzea, hodiak eta txorrotak aldatzea...).
- **Etxebizitzetan bizitzeko egokia den azalera handitzea** (120 m² erabilgarri bitarte) eta etxebizitza berriak sortzea lehendik dauden etxebizitza handiak zatituz.
- Indarrean dagoen lege eta araudietara egokitzeko

Etxebizitza eta eraikinetako akabera pribatiboak aurrekontu babesgarritik kanpo utziko dira, salbu eta haiek nahitaez konpondu eta berritu behar direnean obra babesgarriak egitearen ondorioz.

Nafarroan etxebizitza baten jabea edo erabiltzailea den edozeinek **eskatzen ahal du** hura zaharbertzeko obrak zaharbertze babestutzat jo daitezela, baldin eta etxebizitza horretan badu edo izanen badu bere bizileku ohikoa eta iraunkorra.

Era berean, bada diru-laguntzarik alokatzeko diren etxebizitzak zaharbertzeko ere.

Laguntza eskaerak egiteko Nasuvinsak Donezteben duen bulegora joan behar da (948456103) edo Leitzako Udaletxera (948510009).

BIZIGARRITASUN-ZEDULAK

2016an Nasuvinsak Donezteben duen bulegoaren bitartez 32 zedula eman ziren (2015ean 26). Baztanen 9, Beran 5, Etxalarren 1, Lesakan 5, Donamarian 1, Donezteben 5, Elgorriagan 1, Iturenen 2, Beintza-Labaenen 1 eta Sunbillan 2. 2017an, aldiz, urria bitarte 40 bizigarritasun-zedula eman dira dagoeneko.

Datu-iturria: Nasuvinsa eta Leitzako Udala

Laguntza izateko, eskatzailearen familiaren diru-sarrera ponderatuak aurrekontu babesgarriaren hamarrena gainditu beharko du eta IPREM halako 3,5 baino gutiago izan, salbu eta laguntza eskaera jabeen komunitateak egiten badu.

Urtetik urtera bizigarritasun-zedulen eskaerak gora egin dute: 2015ean 26, 2016an 32 eta 2017an 40 urrirarte. Horrek adierazten du Notariako salerosketa-kopurua handitu dela azken urteotan.



GAZMENDI
ERAIKUNTZAK

DONIBANE KARRIKA
GURE BORDA • SUNBILLA
T. 948 450 130 - 948 451 666
M. 619 469 784



CONSTRUCCIONES A. BENGOTXEA

- Etxebizitzak egin
- Zahar-berritze lanak
- Saneamentuak
- Obra publikoak
- Zeramika denda

URDAZUBI
Tel. 948 599 166 www.carrelagesbengotxea.com



SASOI
eraikuntzak s.l.

Leku-eder, 5
31791 SUNBILLA (NAFARROA)
T. 948 451 596 | F. 948 456 168
info@sasoi.es



mitxel **etxenike etxandi**
javier **oteiza larretxea**

EFIZIENTZIA HAUNDIKO ERAIKINETAN ADITUAK

linoplaza arkitektura

Jaime urrutia 36 - 31700 elizondo (nafarroa) **telf.** 948 58 18 02 **fax.** 948 58 14 12 **e-mail.** info@linoplaza.com **web.** www.linoplaza.com

ASEGURUAK

Lasaitasuna, aseguru onak eskainiko dizuna

Begi bat du saldunak eta ehun eskas ditu erosdunak dio esaera zaharrak eta halaxe izaten da maiz. Etxeko aseguruaren kasuan ere ehun begiak zabal zabala izanagatik, ezustekorik izan nahi ez badugu, komenigarri izaten da hainbat aholkuri jarraiki kontratatzea. Hona hemen jakin beharreko zenbait kontu:



ASEGURU AUKERAK

Etxebizitza aseguruaren artean, batetik, etxebizitza edo eraikuntza bat osatzen duten elementu finkoen multzoa (zoruari, sabaiari edo paretei atxikitako apain-garrizko instalazioak); eta bertetik, barnean dauden ondasun higigarriak aseguratzen dutenak daude. Hori horrela, komenigarria izaten da bi aukerak eskaintzen dituen aseguru hautatzea. Izan ere, etxea alokatzeko asmotan bazabiltza, etxebizitza bera babes-tea nahikoa izan dakizuke; alderantziz, maizterra bazara, barne ondasun mugikorrek ere aseguratzeak lasaitasuna eskain diezazuke.

KALTE ORO BABESTEAK

Suteak edo bertzelako fenomeno atmosferikoek, lapurretak edo lapurreta-saiakerek eragindako kalte estetikoak, gailu-elektronikoei dagozkienak... babes-teko aukera eskaini behar lizuke, baita erantzukizun zibilekoak ere (hoditeria hausturak, kasu).

BABES SALBUETSIK

Aseguruak baztertutako arrisku batzuen babes salbuespena onartzera behar zaitzakete zenbait kasutan: bereziki, gainerako urbanizazioetatik urruti edo hutsik dauden edota aurrefabrikatuak diren etxebizitzetan gertatzen dira halakoak.

ANZABAL INMOBILIARIA



- Zurich Aseguruak
- Autoa, etxebizitza, istripu eta bizitza aseguruak
- Lan aholkularitza
- Nomina eta Aseguru Sozialak
- Aholkularitza fiskala
- Errenta Deklarazioa, BEZa...
- Inmobiliaria
- Baseri, borda, pisu, etab. salmenta eta alokairua
- Gestoria
- Ibilgailuen trasferenziak

Santiago, 15 • ELIZONDO • T. 948 580 804
anzabal@anzabal.com • www.anzabal.com

ETXE ASEGURUAK



ZURE BEHARREN NEURRIRA



Erregistro zenbakia: C00721371193304

**ASEGURUEN
AGENTZIA ESCLUSIBOA**

www.manoneasegursl.seguros.general.es

ELIZONDO-BAZTAN-NAFARROA

Telefonoak: 948 58 11 32- 606 89 68 43 - 626 49 42 43 e-mail: manoneasegur@generalimediadores.es

Aseguruak kontratatzerako orduan, aukerak aztertzea eta bakoitzak eskaintzen dituen babes eta kostuei erreparatzea komeni da.



MAPFRE

Konfiantza osoko aseguru-etxea

IBILGAILUAK | ETXEAK | BIZITZA ETA OSASUNA | PENTSIOAK | INBERTSIO PRODUKTUAK

<p>BERA</p> <p>Bidasoa, 16 T. 948 63 10 14</p>	<p>DONEZTEBE</p> <p>Nagusia, 2 T. 948 45 08 80</p>	<p>ELIZONDO</p> <p>J. Urrutia, 8 T. 948 58 03 76</p>	<p>LEITZA</p> <p>Elgoien, 6 T. 948 51 04 99</p>	<p>LESAKA</p> <p>Pl. Zaharra, 28 T. 948 63 72 20</p>
---	---	---	--	---

IKERKETAK

Eraikuntzak arriskuetatik babestea bezain garrantzitsua da arrisku horiei aurre hartzea. Bertzeak bertze, obra publiko edo azpiegituretako (tunelak, errepideak, trenbideak, urtegiak, portuak) diseinu efizienteek oinarri geologiko zorrotzak izan ohi dituzte. Obra zibiletan, berriz, eraikuntza bat egiteko ikerketa geoteknikoa egin behar izaten da. Ikerketotan geologoek lanak garrantzia handia du. Euskal Herrian, esaterako, luiziei egiteko laguntza handia eskaintzen dute.

PRIMA KOSTUAK

Etxebizitza motak, kokapenak eta erabilerak prima-kostuetan eragiten du. Teilatueko etxebizitzek eta etxabeek, bai eguraldiaren kalteengatik eta baita ezbehar arriskuengatik ere, kostu handiagoa izan ohi dute. Halaber, eraikuntza-materialaren kalitateak ere gorabeherok baldintza ditzake. Beraz, hasteko, informazio zaiten prima kostuez.

GABEALDIK

Gabealdien kasuan aseguru-polizaren eraginkortasuna baliogabetzen da, kalteen gastuak bere gain hartzen ez dituelarik.

EZBEHARREN ABISUA

Aseguruak babesten dituen kalte ordainak jasotzeko, ezbeharra gertatu eta berehala abisutzea komeni izaten da.



IKERKETA
Geologikoak
Geoteknikoak
Hidrogeologikoak
Ingurumenakoak

Zimentazioak • Lur azpiko urak
Ezponden egonkortasuna • Zabortegeiak

Xalbador Kalea, 28 - 31700 ELIZONDO (BAZTAN)

620.796.005 - ph.gamoy@yahoo.com



IKERKETA GEOTEKNIKO ETA HIDROGEOLOGIKOAK
edozein eraikuntzarako zimentatzeak,
eraikuntza zibila, lurpeko urak, ingurugiroa

www.geea.es

696 435 907 • 606 507 335



• OBRETAKO LAGUNTZA TEKNIKOA

- Industria eta merkataritzako eraikuntza eta instalakuntza.
- Obra zibila
- Etxegintza

• TOPOGRAFIA ETA GEOMATIKA

- INSTALAZIO ETA ERAIKINEN MANTENTZEAREN KUDEAKETA
- TERMOGRAFIA
- KONTSULTAK, TXOSTENAK, PERITAZIOAK



Garaialde etxea, Apdo. 42 - ELBETE-BAZTAN
T. 948 580 988 - 666 226 872 - amartin@enik.es

Ronda de las Ventas, 6, 1.A - BURLATA | T. 948 067 231-666 226 872
administracion@enik.es - amartin@enik.es



C.I.F. A - 31527146

URDIAINEN DELEGAZIOA

INSTALAZIOA ETA MANTENU ZERBITZUA

24 ORDUKO ZERBITZUA

SUTEAK: Detektagailuak, barrerak, pultsadore... Itzaltzeko lanak, su-itxalgailu, suhesi-ateak...

SARRERA KONTROLAK

DOMOTIKA

LAPURRETA: Detektagailuak, barrerak... (Alarma-hargailuaren zentralera konexioarekin edo gabe)

CCTV: Bideo-grabagailu analogikoak, tribidoak, kanpoko kamerak eta barrukoak argiztapenarekin.

ORDUTEGI KONTROLA

SEGURTASUN ZAINZAILAK Giltza-zainketa eta alarma asistentzia zerbitzua segurtasun zaindari batek egina.

Ezkaibarte industrialdea - C./T 7 zbk. - 31181 ORIKAIN (Nafarroa)

Tel.: 948 142 102 - 649 476 624 • www.astratelseguridad.com • astratel@astratelseguridad.com

- LOKALEN EGOKITZEAK
- ERAIKUNTZA BERRIAK
- ZAHARBERRITZEAK
- BARNE DISEINUAK
- AHOLKULARITZA
- PASSIVE HOUSE
- TEILATUAK BERRITZEKO SEGURITASUN ESTUDIOAK
- KALIFIKAZIO ENERGETIKOAK, ...

IRURITA

DOARQ
arkitektura bulegoa
maite & idoia danboriena olaetxea
T 9 4 8 1 4 0 8 0 6




ARKITEKTOAK

Gainazal ekologikoak

Ingurugiroarekiko errespetua, aurrezpen energetikoa eta jasangarritasuna arkitektoen lanetan geroz eta gehiago aipatzen diren ideiak dira. Gainazal ekologikoak eraikuntza-lanek eta naturak bat egin dezaketen adibide argia dira. Isolamendu termiko eta akustikoa lortzen da, inguruan integratzen diren diseinuak izaten dira eta kutsadura murrizten da.

Gainazal ekologiko bat begiratzean, gainazalean landareak landatuta dituen teilatu bat ikusiko genuke, baina hori baino konplexuagoa da bere diseinua. Gainazal horiek, hainbat geruza izan ohi dituzte: eraikina babestuko duen geruza inpermeabilizatzaile bat, uraren zikloa egokia izanzen dela bermatuko duen geruza drainatzailea, isolatzaile egoki bat eta substratu organiko bat, bertan landareak landatzeko.



Oiartzabal
arkitektoak

Ipar karrika, 15
31780 **BERA**
T. 948 630 304 • 627 955 349



LABORRA ARKITEKTOAK
-Gabriel & Ines-

Santiago 66, 1º - Elizondo - 948.580.122

Zuen etxebizitza-eraikinak
50 urte baino gehiago ditu?

Eraikinen Ebaluazio Txostena
egiteko momentua da.

IEE



Derrigorrezkoa: 108/2014 Dekretu Foralaren arabera
www.laborra.com

Bioeraikuntzak aplikazio teknologikoak, alderdi funtzionala eta estetikoa uztartuz, etxebizitzak ingurugiroarekin eta naturarekin erlazionatzen ditu

CARLOS SAGASTIBELTZA VILLANUEVA



ARKITEKTU TEKNIKOA

- Etxebizitza berriak
- Eraikinak zaharberritzea.
- Zureko solairu eta teilatuetan espezializatua
- Diru laguntza eskaerak bideratzen aholkularitza
- Energia aurrezteko fatxadak
- Ilogailuak jartzea
- Konpromisorik gabeko aurrekontuak

Landa Ind. Landa eraikina 1esk · LEITZA
948 610 684 • 629 611 912
sagastibeltza@coaatnavarra.org



arteka20
arkitektura eta zerbitzuak

www.artekabaztan.com

Balda medikua plaza 1- 1A 31700 Elizondo. Nafarroa 948 580 610



ORAIN
PASSIVHAUS ERE BAI

Patxi Valer
DESIGNER
CERTIFIED PASSIVE HOUSE DESIGNER

Juan Mari Aleman
TRADESPERSON
CERTIFIED PASSIVE HOUSE TRADESPERSON

Apezteguia Berria

ferretería – burdindegia


Margoak eta bernizak
Erreminta elektrikoa
Esku erreminta
Konpresoreak
Lanerako arropa
Baratzea lantzeko tresnak
eta dendan aukera gehiago

www.apezteguiaberria.com

Leitzako Errepidea 33, Doneztebe - T. 948 450 994 - F. 948 450 882 - info@apezteguiaberria.com

ae

arkitektura eta eraginkortasun energetikoa
arquitectura y eficiencia energética



ZAHAR-BERRITZE LANAK



BARNE DISEINUA



MEKANIZATZARAKO ERAIKUNTZA INDUSTRIALAK



ZURRIAGIRI ENERGETIKOAK

- Laura Apezteguia - Inato Irazoki etorbidea 2, Doneztebe - T. 626 261 990 - laura@apezteguiaelizalde.com -

www.apezteguiaelizalde.com



30 | www.ventaducarrelage.com | 688. zk
2017

Venta du Carrelage

Zeramikaren benta

asteartetik ostirala arte:
09:00-12:30 / 14:30-19:00

larunbata:
09:00-12:30 / 13:30-18:00

Lori venta | Zugarramurdi

Tel.: (0034) **948 599 024**

Mug.: (0033) **615 115 223**


www.ventaducarrelage.com

MATERIALAK

Zeramika, tradizioaz haraindi

Argi dago, etheen diseinuaren arabera, material batzuek bertzeek baino pisu gehiago dutela. Edonola ere, zeramikaren garapena azpimarragarria izan da. Tradizionalki komun eta sukaldeetan ikusi izan dugun materiala,

etxeetako xoko anitzetan aurkituko dugu egun. Proposamen politak sor daitzke zeramikarekin, etxe-ko egongeletan, guneak bereizteko, frisoetan, logeletako oheburuetan... aurki dezakegu. Probatzean omen dago gakoa...



ALMACO BAZTAN

GRUP GATTIA

www.almacobaztan.com



hotza heldu da!



berria!
... etorri
ikustera!



Errepide nagusia, Elizondo

Tel. 948 580 104 Fax. 948 581 857



MENDI BigMat TXURI



Leitzako Bidea, 39 • 31740 DONEZTEBE • T. 948 45 03 05 F. 948 450 068 • www.menditxuri.com



IGELTSU PROIEKTATUA
LOIZATE
BUZTINA

J. M. Mitxelena 689 908 665

Zalain ind. 42B-3 · BERA

I.M. RRIXKO
IGELTSERITZA
IGELTSERITZA ETA ZURGIN LANAK

ESTRUKTURAK
TEILATUAK
FATXADAK
ZAHAR BERRITZE LANAK

Tel.: 661 735 052 · ARANTZA · SUNBILLA

J B Iturria
CONSTRUCCIONES

Etxebiztzen salmenta
Fatxaden birgaitzea
Lur mugimenduak
Teilatuak
Jar ezazu zure
proiektua gure eskutan!

Baztanberri Plaza, 2 - behea
31700 ELIZONDO
T. 948 580 304
info@jbiturria.com

www.jbiturria.com

ZABALA eta GOIKOETXEA
ERAIKUNTZAK

Gure Ametsa GOIZUETA
T/F: 948 51 42 28 M. 679 47 98 93 · 679 47 98 78

LOHITZYNE
eraikuntzak

ETXEAK, TEILATUAK eta
ERAIKUNTZAK OROKORREAN

Tfnoa: 948 615 110 | Mug: 699 461 386
Eguzkialde etxea 31749 EZKURRA

JAVIER IBARRA

ERAIKUNTZAK
Gremioen koordinazioa
Mota guztietako igeltseritza lanak

- Etxe bizitza berriak
- Zahar berritzeak
- Erreformak
- Teilatuak
- Komun eta sukaldeak
- Lur zoruak
- Harri lanak orokorrean
- Hormigoi lanak

T. 699 122 815 · 31791 - SUNBILLA (Nafarroa)



ETXEGILEAK

Xurgapen sistema zentralizatuak

Etxeko garbiketa denbora erdian, isiltasunean eta eroso egiteko xurgapen sistema zentralizatuak aukera bikaina izan daiteke.

Irudikatu al duzu inoiz etxeko garbiketa denbora guttitan egitea ahalbidetzen duen sistemarik?

Xurgapen sistema zentralizatuaren bidez, ezkutaturiko trasteleku, garaje, soto edo armairu batean zentral tiki bat paratuz, zikinkeria guztia toki berera bil-tzea ahalbidetzen duen sistema da.

Denbora aurreztea ez ezik, bertze hainbat abantaila eskaintzen ditu. Hala, xurgatze hodi sarea eta seinale elektrikoa etxe guztira hedatzen da. Funtzionamendu erraza du, tutu malgu bat entxuferra konektatzean piztu eta entxufetik ateratzean itzali egiten da; eta abantailak nabarmenak dira. Bertzeak bertze, etxeko garbiketa %40 edo %50 azkarrago egiten da, inolako aspiragailurik eta soinurik gabeko sistema baliatuz. Zertarako galdu horrenbertze denbora gustoko ez ditugun lanetan?

TALOTXA
IGANTZI ERAIKUNTZAK S.L.

Piedadeko auzoa, 8 · 31790 IGANTZI
Tel. 608.202.126 / 618.901.810

LABIAGA
eraikuntzak
GREMIOEN KOORDINAZIOA

IMANOL 608 117 634
XATUR 608 117 635

BERA | ELIZONDO

ISOLATU ZURE ETXEA ETA AURREZTU

Isolamendu termikoa eta akustikoa

%50a aurreztu

Egun batean

Obrarik gabe



BEGIRATU ZEIN
ERRAZA DEN
APLIKATZEA

AislaNat, Nafarroan ekoiztutako zelulosazko isolamendu bakarra.

Isolatu zure etxea zelulosarekin, egun batean, obrarik gabe, gutxi gastatuta eta produktu ekologiko batekin.

A AISLANat
AISLANTE DE CELULOSA

BIOKLIMA
NATURE

948 33 00 15 - 627 41 22 69
www.aislantesaislanat.es

616 513 497

Pittie
ESKABAZIOAK



**ESKABAZIO eta
GARRAIO LANAK**

T./F. 948 451 389
Ezpelura, 1 · DONEZTEBE

pittieskabazioak@hotmail.com
www.pittieskabazioak.com

**MAKINAK ETA ZERBITZUEN
ALOKAILUA**

J.V. Juberu, S.L. eraikuntzak




DONEZTEBE

Leitza bidea, 72 · DONEZTEBE · T. 948 451 793
T. 659 702 694 · jvjuberu@gmail.com

Indusketa-lanak,
inausketa, husketa
eta betelana,
egiteko
lurrazalaren
berezko
ezaugarriak ez ezik,
kanpo-faktoreak
ere aintzat hartu
behar dira.




KAXKANTE ESKABAZIOAK

Inoiz baino hobere, leku estuetan ere

Miguel Angel Oyarzabal
Egurretxe, Donamariko bidea
31740 Doneztebe

608 978 210

MIKEL UBIRIA
eskabazioak
garraioak




Biurrana 8 · 31770 Lesaka

☎ 948.637.302 ☎ 9.716.322 ☎ 608.779.641
info@excavacionesubiria.com

Lurzorutik
erauzitako
materiala aztertu
ondotik, baliagarria
den luraren
hezetasuna landu
eta hondakinak
baztertu behar
izaten dira.



TRANSTXAKAIN
TRANSTXAKAIN. s.l.
JESUS ARAMBURU ALZUGARAY

Aurreztu!






ERAIKUNTZA-HONDAKINEN KUDEATZAILEA (Nafarroako Gobernuaren baimena)

KONTENEDOREEN ALOKAIKUA 20m³ arte

PUTZU SEPTIKOEN GARBITZE ETA LIBRATZE LANAK

MOTA GUZTIETAKO IBILGAILUAK

- Kamioia 15mko garabiarekin
- Kamioia 32mko garabiarekin
- Kaja baskulatazailearekin

- Zisternarekin:
Putzu septikoak
Tuberietako ataskoak kentzea
Ura lekuz aldatzea

Otsango Ind. 14 · LESAKA · info@transtxakain.com
T. 669 840 198 | 948 638 052 · F. 948 627 578

ETXEGILEAK

Harria, eskualdeko etxeen oinarria

Harria bezain gogorra esaerakerdi laburbiltzen duenez, harria material iraunkorra da. Izan horregatik, edo bertze edozein arrazoiengatik, egun, egurrarekin batera, gure artean, etxeen oinarritzko materialetako bat da. Batzuek, etxeko paretetan erabiltzen dute; bertzeek, sarreretakoko arkuetan edo pareta edo leihoetako izkinetan; badira etxe inguruan harri paretak egiten dituztenak ere. Egitura-lanetan, granitoa (gogorra eta erresistentzia kimiko handikoa), gneisa, hareharria, kaliza (zintarrietarako, aise lan-tzen delako), marmola (trin-

kotasunagatik), arbela eta pizarra dira erabilienak.

Material horiek erai-kuntzan erabiltzera pasatu aitzinetik, prozesua luzea da: harrobietatik erauzi, moztu, landu eta leundu egin behar izaten baita.

Areago, harria behar bezala erabiltzeko, oinarritzko ezaugarri batzuk eza-gutu behar dira: itxura, egitura, erresistentzia, pisua, gogortasuna, ur-xurgapena... Azken ezaugarri hori da, bertzeak bertze, harriaren iraunkortasuna baldintzatzen duena.

Hortaz, xurgapen handiko harrien erabilera saihestea komeni izaten da.

Halere, urak ez ezik, haizeak, temperatura aldaketek, landareek (prozesu bakteriologikoengatik), hainbat harri mota batera erabiltzeak edota bertzelako eragile kimikoek ere harrietan narriadurak eragin ditzakete.

Era berean, suarekiko erresistentzia bermatzeko, kaltzio karbonato, burdin oxido eta espantsio termiko koefizienteko mineralik gabeko eraikuntzak gomendatzen dituzte.

Azken batean, aukera hoberena inguru eta beharren arabera denez, egokiena profesionalen eskutik uztea izaten da.



Aitzinaldeak, angeluak, pareta aitzinekoak leihoak, ateak, arkuak, pilareak, tximiniak, erlaizak, moldurak zokaloak, hilarriak, marrazkiak

Tel. 948 631 317
Irungo errep. BERA
www.antzuzelai.com • info@antzuzelai.com

Oharriz Auzoa z/g - LEKAROZ
T.948 452 143 • 948 452 449
info@harrilan.com
www.harrilan.com

EDOZEIN HARRI MOTAREKIN
LAN GUZTIAK EGITEN DITUGU



katu dituzte: azaroaren
11n Iruztunen kontzer-
tua eskaini zuten, aza-
roaren 17an Beasainen
izanen dira, 24an Iruñe-
an, 25ean Portugaleten
eta abenduaren 6an Du-
rangon.

Ba al zenekien?

Kortariko gasnak bi-
garren saria eskura-
tu duela Euskal He-
rriko txapelketan.

BERTSOLARITZA

Heldu hasiberriendako bertso eskola hasiko da abenduan

TTIPI-TTAPA

Baztango Bertso Eskolak, heldu hasiberrien taldea martxan jarriko du abendutik aitzinerat, hurrengo ikasturteetan talde finkoa izateko intenzioarekin. Hortarako Arizkunenea Kultur Etxean izanen dute asteroko hitzordua, ortziraletan 19:30etik 21:30 arte.

Bertsozalea den, eta bertsoaren inguruko oinarriak eta sekretuak ezagutu nahi dituen guziazari eskainia dago deialdia, 16 urtetatik hasita, adin mugarik gabe. Ez da beharrezkoa gutieneko mailarik izatea, gogo, zaletasuna eta jakinmina bertzerik ez dira behar.

Izen ematea deialdekoa da, eta horretarako baztangobertsoeskola@gmail.com helbide elektronikora idatzi, edo bertso eskolako kideren batekin harremanean jarri beharko da.

zergalan | asegi
asesores y consejeros de empresa
enpresa kontseilari eta aholkulariak

ORAIN ZERBITZU BERRIAK ESKAINTZEN DITUGU

- Kontabilitate zerbitzuak
- Zerbitzu fiskalak
- Lan-aholkularitza
- Aholkularitza juridikoa
- Herentzia eta Testamentuak
- Laneko Arriskuen Prebentziorako Zerbitzua
- Datuen babesa

Baztanberri plaza, 6
31700 ELIZONDO
T. 948 581 300 - F. 948 580 648

www.zergalan.es | info@zergalan.es
www.asegi.com

Eliza Kalea, 22
31740 DONEZTEBE
T. 948 450 395 - F. 948 451 304

Mármoles
SOULE
HILETA ARTEA



T. 948 453 444
M. 688 605 182
ARIZKUN

GIZARTEA → AZAROAREN 7AN AURKEZTU DUTE

Turismo-fitxa betetzeko app berritzailea


Mugikor bidez, bezeroaren Nortasun Agiriko datuak irakurtzen ditu 'Aloha2' aplikazioak

TTIPI-TTAPA

Enpresa batek APP bat sortu du turismo establezimenduetan bezeroak etortzen direne-

an bete beharreko polizia-fitxaren tramitea errazteko. Baztan-Bidasoa Turismoa Elkargok *Aloha2* aplikazio berritzaile honen aurkezpena egin du azaroaren 7an elkartearen egoitzan, Bertizen. Bilerara Baztan-Bidasoa Turismoa Elkargoko kide ugari agertu dira, informazioa jasotze aldera.

Fitxa poliziala betetzeko aplikazioa da *Aloha2*. Mugikor bidez, be-



UTZITAKO ARGAZKIA

Esteban Fernandez de Las Heras egilea eta Sunbillako Garziabaita landetxeko Loli Sanchez, aplikazioaren erabilera erakusten.

zeroaren Nortasun Agiriko datuak irakurtzen ditu. Irakurri, sinatu eta zuzenean ordenagailura eta poliziarenera iristen dira datuak, aplikazioa osatu duen Esteban Fernandez de las

Herasek jakinarazi zue-
nez.

Lana errazten die establezimenduko nagusiei, izan ere, orain arte, bezero bat heltzen aldioro fitxa bete behar izaten zuten. Es-

kuz betetzen zuten, eta gero datuak ordenagailura pasatu behar ziztuzten. Aplikazio honi esker urrats horiek batean egiten dira. Android mugikorrendako balio du aplikazioak.

BEROPEL
egurrezko pellets

ECHEVESTE HNOS. SL

T. +34 948 637 232 • +34 618 264 654

31770 LESAKA (Nafarroa) • Fax + 34 948 637 250

info@echevestehermanos.com
www.echevestehermanos.com

EN plus A1
ES 025

ZUGARRAMURDI

KULTURA → AZAROAREN 3AN

Sorgin haizea Logroñoraino ailegatu da

Antzerki taldeak emanaldia eskaini zuen

Josebiñe eta Koro

Sorgin haizea antzerki taldeak, bere aurtengo azkeneko emanaldia eskeini zuen azaroaren 3an Logroñon.

Antzerkia egiteaz gain, inkizisioak sorgin bezala preso hartutako herritarren omenez egin zen ekitaldian ere parte hartu zuten, *Hegoak*

kantatuz eta belar eskaintza bat eginez.

Aipatzekoa da 2010 urtean Logroñok Memoriaren Oihana sortu zuela, lagun haien oroigarri bezala. Logroño eta Zugarramurdikoen artean 11 zugar landatu zituzten orduan, erre zituzten 11 lagunena ikurtzat. Gaur egun zuhaitz haiek eder-eder eginak dira, borobil bat osatzen dute, eta borobil erdian monolito bat emana da. Ebro ibaiaren bazterre-



UTZITAKO ARGAZKIA

Logroñon eskaini zuten 'Sorgin Haizea' taldekoek antzerki emanaldi hunkigarria.

ko aldean dago, duela 407 urte preso atxiki zituzten tokitik hurbil.

Euskal kultura lantzeko herri arteko jokoak

Ekitaldi polit bat martxan paratu dute Sara, Ainhoa, Urdazubi, Zugarramurdi, Bera eta

Etxalarren artean. Joko eta frogen bidez, euskal kultura landu eta ongi pasatzea da helburu.

Eta funtsean horrela izanen da: herri bakoitzean ekipo bat sortuko da, eta egun zehatz batean batzuk bertzean kontra jokatu dute: esku pilota, indar jokoak, txirindula, laster-

keta, dantza, musa, bertsoak eta sukaldaritzia.

Urtean behin egingen da, herriz aldatuz, eta lehenbizikoa Saran egingen da, heldu den urteko udaberrian.

Momentu honetan ekipak osatzen ari dira, eta gure herrian izena ematea Marixan ostatuan egin behar da.

URDAZUBI

GIZARTEA → AZAROAREN 16AN

Xareta ostatuko maizterra kaleratuko dute

20.000 eurotik goitiko zorra utzi du

Iñigo IMAZ

2016ko apirilaren 29an Xareta Ostatuaren behin betiko esleipena egin zuen udal batzararak. Maizter berriak hileroko 1.850 euro (+BEZa) ordaintzeko konpromisoa hartu zuen. Horrekin batera, 3.700 euroko fidantza ere ordaindu behar zuen kontra-

tua sinatzerakoan. Orduz geroztik arazoak izan ditu Udalak errenta kobratzeko. Fidantzaz gain, 2016ko ekaina, uztaila eta abuztua soilik ordaindu zituen maizterrak.

2017ko urtarrilean, oposizioak maizter berria kanporatzeko prozedura judiziala hasteko eskatu zion Udalari. Hainbat bilera eta saikera egin ondoren, Udalak kanporatze epaiketara hastea erabaki zuen.



ARGAZKIA: INIGO IMAZ

Aitzinako autoen elkarretaratzea

Aspalditik dabil XX. mendeko ibilgailuen maitale eta jabeak biltzen dituen Itxasuko *Les Vieux Machins* elkarteak Lapurdi aldean txangoak antolatzen. Aurten, lehen aldiz mugaz gaindi Urdazubirat hurbiltzea erabaki dute. Guztira ia 40 auto eta furgonetaren bat, gehienak 60 eta 70. hamarkadakoak, baina zaharragoak ere ikusi ahal izan ziren taldean. Itxasutik, euripean, baina animoa galdu gabe, Urdazubirantz abiatu ziren partehartzaileak. Salbatore Plazara heldu ziren arazorik gabe. Plazan, eta ibilgailu zaharrek zorua ez zikintzeko, plastiko beltza paratu zuten. Bertan kotxeak aparkatu eta Indianoa Baitan bazkaldu zuten 70 partehartzaileek.

Azkenean, 20.000 eurotik gorako zorra utzi

du maizterrak. Epaileak maizterren kanpo-

ratzea agindu du azaroaren 16rako.

GIZARTEA → HAZILAREN 6AN

Bake egileek bilkura publikoa eman dute

Egoera aurkeztuz gainerat, abenduaren 9ko Pariseko manifestaldiaz mintzatu dira

Pierre BASTRES

Senperen bertze herri zenbaitetan bezala, Bake egile batzuk etorri dira bertakoei eta auzo herrikoei egoera presentatzerat eta laburbiltzerat, bai eta gero egin beharrak zein diren adierazteko ere.

Mixel Berhocoirigoin, Luhusoko armagabetzeko eragile bat, Peio Dufau, Mertxe Colinak, bertzeak bertze hor ziren, eta oren bat eta erdiko mintzaldia eman dute St Christophe lizeoko sala batetan.

Helburua zen lehe-

nik jakinaraztea non eta zertan den bake prozesua, eta norat doan.

Mixel Berokoirigoinek argi eta garbi erakutsi izan du Bakeegileen eginbeharrak: «Euskal Herriko kasuan, ohiz kanpoko prozesua bizitzen ari gara, zeinetan herritarrak baitire eragile handiak. Armagabetzeak ez du erran nahi helmugarat heldu garela. Egiazko bakea erdiesteko, bertze urratsak egitekoak ditugu. Ondokoa eta inportantenetako bat da presoen problema konpontzea. Apiriletik negoziaketan ari gara Frantziako gobernuarekin, eta iduri du aditzen gaituztela lehen baino gehiago. Sumatu dugu jokabide aldaketa bat gure alde, ohar-gaitza izanagatik ere. Tenorea da Frantzia osoari erakustea konpondu behar



delako presoaren arazoa, eta hortakotz manifestaldi handi bat ari gara antolatzen, Parisen abenduaren 9rako». Manifa bera baino lehenago, Frantziako presontegietarako itzulia antolatuko dute ere, Mertxe Colinak gehitzen duen bezala: «Baionatik abiatuz, presoek ikusterat ganen gara, Mont de Marsanerat, Marsaillerat, Tolosarat etab. Azkenik, Pariserat helduko gara abenduaren 9an».

Peio Dufauk azpimarratzen duen bezala, «antolakuntza handiko lanetan gara, bi train betetu ditugu janeko, hirugarren bat ere doike. Arrakastatsua izan dadin, autobusak bete behar ditugu orain. Horrelako bertze elkarretaraterik ez da sekula izanen, zatozte eta erraten ahalko duzue: Han nintzen!».



UTZITAKO ARGAZKIAK

Xabi Camino eta Mixel Berhocoirigoin bake egileek mintzo.

HAZILAREN 29AN LARREKO GELAN

Estitxu kantariari buruzko dokumentala aurkeztuko du Franck Dolosor kazetariak

Pierre BASTRES

Estitxu kantariaren aipamenean erreakzio soka luzea sortzen dute beti. 2018ko otsailean mende laurdena beteko da bere ahotsa betirako isildu zela. Halere, milaka euskaltzale eta musikazalek gogoan dute beti *Beskoitzeko errexiño-la*. Euskal Herriko Joan Baez ere izendatu zuen kazetari batek. 2017ko martxoaren 8an, Estitxu izena eman zioten Baionako karrika bati. Lapurdiko hiriburuko auzapez eta Iparraldeko elkargoaren presidentek hamarnaka mezu jaso zituen orduan erabaki hori eskertzeko. Prentsan agertu ziren aipamenean ere sekulan ez bezalako eskertza jaso zuten. Estitxuren aipamenean ustegabeak pizten ditu beti. Abeslari horren inguruko dokumentala prestatu du Franck Dolosor herriko kazetariak eta hazilaren 15ean, Bilboko Zinebi jaialdian egin du lehen aurkezpena. Hazilaren 29an, 19:30ean Larreko gelan erakutsiko du.

JATETXE-ERRETEGIA
MONTXO
OSTATUA-TABAKO-DENDA

Egunero irekia
09:00etatik
02:30era

Dantxarinetatik
2 km.tara

PLATER KONBINATUAK · OGITARTEKOAK
MENUAK ENKARGUZ · PINTXOAK
ESPEZIALISTAK ARRAIN ETA TXULETOIAN

ANZAN-BORDA · URDAZUBI | 948 599 039
montxoblanco@gmail.com

BORDALARRIA

Gure Haragia
Nuestro Carne

Carnes Sein Haragiak, S.L.
Industrialdea, 27
MAFRIDO ERAIKINA · DONOSTIA
Tel. 943 467 244 943 467 444
Fax. 943 473 726
carnessein@bordako.com

SARA

GIZARTEA → URRIAREN 2AN

10 haurrekin ateak ideki ditu Aldaxa haurtzaindegiak

Zahar Etxearen
'Larrun'
eraikinaren
behean, 200
metro
koadroko
lokalean

Joana GERENDIAIN

Joan den urriaren 2an, Aldaxa haurtzaindegiak bere ateak ideki zituen, bide beretik urte andana batez eramana izan den proiektu bati bukaera emanaz. Haurtzaindegia ohiko zahar etxearen "Larrun" eraikinaren behean kokatua da.

Orain arte, Sarako herriak ez zuenez haurtzaindegirik, herriko haurtzaindegiak 13 leku erreserbatuak ziren Senperrekoan. Gaur egun, haurtzaindegian, hiru

langileren ardurapean, hamar haur errezibitu dituzte, baina harrera ahalmena 18 haurrentzat pentsatua izan zen. Lokalak 200 metro koadroko azalera du, haurraren garapen egokirako, hainbat espaziotan banatuak: pausa gela bat, joko gela bat eta kanpoko eremua, oraindik bukatzeke dagoena. Bazkariak bertan prestatuak dira, tokiko produktuak ahal bezainbat erabiliz.

Mendian euskaraz

Azaroaren 19an, Mendian euskaraz elkarteak mendi irteera bat antolatu du Larrunera. Mendi talde horren helburua honakoa da: Euskal Herriko mendiak ezagutu irteerak egitea, euskaraz bakarrik mintzatuz. Egun horretan beraz, hitzordua



ARGAZKIA: JOANA GERENDIAIN

Egun hamar haur errezibitzen dituzte hiru langileek, baina zortzi gehiago har ditzakete.

Lizuniagako jatetxean hitzartua da, igandean goizeko 8:45ean, hortik abiatuko dira Larrunetuntz 10 kilometro luze-ko eta 800 metroko desnibela duen ibilbide bantentzat. Euskararen sustengua aparte, ibilaladi hori «Larrun ez hunki» ekimenarekin bat egiteko aukera izanen da parte-hartzaileentzat. Hortaz, Saratik ez ezik, Azkaine, Bera eta Urruñatik ere espero dituzte ibiltariak. Larrun gainean ekitaldi bat antolatu da, egoeraren irakurketarekin eta tokian berean, egin gogo duten proiektuaren azalpena eskainiz.

Kantaldia

Olhain ikastolaren 40 ur-

teak ospatzeko burasok kantaldi bat antolatu dute azaroaren 18an, larunbat arratsaldeko 5etan. Kantaldi horretan ikastolako burasok eta, bistan dena, hurrek kantatuko dute. Bertan jateko eta edateko aukera izanen da. Sartzea 3 euro izanen da helduentzat eta urririk haurrentzat.

Eguberritako merkatua

Azaroaren 25ean, San Josepe eskolako burasok eguberritako merkatua antolatuko dute plazan. Egun horretan burasok egingako sorkuntza bereziak salgai izanen dira. Merkatua goizeko 9etan hasiko da eta iluntzera

bitarte, jatekoak eta edari beroak salduko dira.

Mus eta Poker lehiaketa

Heldu den azaroaren 25ean eskola publikoko burasok mus eta poker lehiaketa bat antolatu dute, eskolako jantegian. Partidak, larunbatean iluntzeko 7etan hasiko dira, bertan jateko eta edateko manera izanen da. Izena emateko 06 43 96 42 15 zenbakira deitu behar da.

Kirol emaitzak

Urriaren 29an, errugbian, Basurdeek 26-8 irabazi dute Narosseko ekipoaren kontra, *match* bikaina egin ondotik.

VENTA PEIO
T. 902 210 800 • www.venta-peio.com

Bera (Administrazioa) 31780 BERA Dantzarinea 31712 URDAX Ibadin 31780 BERA Luzaide 31660 LUZAIDE

Landibar
tabac pret a port restaurant super tabac cadeaux maroquinerie

tanatorios
IRACHE

24 ORDUKO TELEFONOA
948 581 959 | 948 637 404

BERA (SAN JOSE) | BERA (ITURLANDETA)
DONEZTEBE (SAN PEDRO) | ELIZONDO (BAZTANDARRA)
ELIZONDO (BAZTAN) | LESAKA

TRASLADOAK IRUÑA, DONOSTIA ETA IRUNGO OSPITALITATIK EDOZEIN HERRIETARA
LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK

EZKONTZAK

Pantxo Saint Martin eta **Edurne indaburu**, Sarakoak, irailaren 2an.
Nicolas Pildain eta **Pantxika Lastra**, Sarakoak, urriaren 7an.
Christophe Petit eta **Françoise Cordelette**, Sarakoak, urriaren 21ean.
Gilles Barnebougle eta **Patricia Lafitte**, Sarakoak, urriaren 28an.
Koikili Fagoaga Oiartzabal eta **Cristina Camino Castro**, Lesaka eta Donostiakoa, urriaren 28an.

Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu beharko du.

SORTZEAK

Unax Sarratea Azkarate, Doneztebekoa, urriaren 23an.
Libe Urbistondo, Sarakoa, irailaren 3an.
Xabi Demarcq, Sarakoa, irailaren 5ean.
Eguen Urrutia, Sarakoa, urriaren 2an.
Aimar Baleztena Gofii, Arantzakoa, urriaren 29an.
Aner Garde Etxeberria, Etxalarkoa, urriaren 26an.

Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu beharko du.



IZARRA

HEMEN, ZURE ONDOAN

Urte osoan 24 orduko zerbitzua

Beilatoki zerbitzua Bortzrietan
baita eskualdeko etxeetan ere

T. 948 05 90 90

HERIOTZAK

Juana Lasaga Irazabal, Alkaiagakoa, urriaren 26an, 100 urte.
Juanito Bergara Elizondo Banana, Arantzakoa, urriaren 26an, 71 urte.
Nicolas Telletxea Arregi, Oieretikoa, urriaren 27an, 81 urte.
Feli Juanikotena Urrutia, Oharriz-Lekarozkoa, urriaren 28an, 86 urte.
Izaskun Erbiti Gastosi, Leitzakoa, urriaren 29an, 48 urte.
Miguel Makuso Urroz, Aurtizkoa, urriaren 31n, 83 urte.
Jean Duhard, Sarakoa, urriaren 31n, 94 urte.
Jose Luis Vazquez Gonzalez, Berakoa, azaroaren 2an, 57 urte.
Mario Osua Fernandez, Berakoa, azaroaren 3an, 70 urte.
Maritxu Larçabal, Sarakoa, azaroaren 3an, 83 urte.
Jose Mari Almandoz Mitxelena, Arantzakoa, azaroaren 7an, 85 urte.



HERRI KIROLA → NAFARROAKO SOKATIRA TXAPELKETAN 640 KILOKOAN ZORTZINAKA ETA 375 KILOKOAN SEINAKA

Beti Gazteko mutilak txapeldun eta neskak hirugarren izan dira

Txapelketako hondarreko jardunaldia Lesakan jokatu da larunbatean

TTIPI-TTAPA | LESAKA

Nafarroako Goma Gaineko Sokatira txapelketako lehen txapelak banatu ziren azaroaren 4an Berriozarren. Gizonezkoen 640 kiloko txapelketan, Arbizun jokutako lehen jardunaldian bezalaxe, Beti Gazteko tiraldi guztiak irabazi zituen eta, horrenbertez, txapelantzi zuen. Emakumezkoetan, 375 kiloko kategorian, hirugarren izan ziren Beti Gaztekoak.



UTZITAKO ARGAZKIA

Beti Gazteko mutilak txapeldun izan dira 640 kiloko kategorian. Neskak hirugarren.

Gizonezkoetan, Berriozar eta Antsoain sailkatu ziren lesakarren gibeletik. Beti Gazteko talde txapeldunean Karmelo Mitxelena, Iñigo Altzugarai, Unai Gurruzugaxa, Gerardo Telletxea, Beñat Ordoki, Alejo Sarobe, Mikel Apeztegia eta Beñardo

lantzi aritu dira tiran, Paskual Taberna eta Eneko Saldias erakusle zutela.

Emakumezkoetan, berriz, Txantrea izan zen txapeldun, Berriozar txapeldun orde, Beti Gazte hirugarren eta Antsoain laugarren. Beti Gazteko taldean, Kris-

tine Txoperena, Aitziber Goienetxe, Amaia Leiza, Oihana Mindegia, Ainhoa Ubiria eta Udane Arbelaitzek osatutako seikotea aritu zen tiran, Karmele Pikabea erakusle zutela.

Arbizun jokatu da lehen jardunaldian, Berriozarrekin berdindu

egin zuten Beti Gazteko neskek, baina bigarren jardunaldian ezin izan zioten tiraldirik irabazi. Antsoainekin bakarrik irabazi zuten.

ORAIN, GIZONEZKOAK 600 KILOTAN ETA TXAPELKETA MISTOA

Azaroaren 11n Laruntzan jokatu da giza-semeen 600 kiloko lehen jardunaldia eta txapelketa mistoaren (550 kilo) lehen jardunaldia. Azaroaren 18an, larunbatean, 17:00etan hasita, Lesakako udal pilotalekuan jokatu da kategoria hauetako bigarren eta hondar jardunaldia. Bi kategoriatan taldea kantxaratu du Beti Gazteko eta, beraz, etxean jantzi ditzazkete txapelak.

HERRI KIROLA → EUSKAL HERRIKO BIGARREN MAILAKO AIZKORA TXAPELKETA

Ruben Saralegik txapela jantzi eta lehen mailan jokatu du hirugarrenez

Nafarroako txapelketa nagusia ortziralean Donezteben

TTIPI-TTAPA | LEITZA

Euskal Herriko bigarren mailako aizkora txapelketaren finala jokatu zen urriaren 29an Azkoitiko (Gipuzkoa) Gurea

pilotalekuan. Ruben Saralegi leitzarra nagusitu zen eta txapeldunorde izan zen Xabier Zalduarekin batera ariko da lehen mailan datorren urtean.

Saralegik 20 minutu eskas, 19 minutu eta 59 segundo behar izan zituen 54 ontzako bi enbor, 60 ontzako bi enbor eta 72 ontzako bi enbor mozteko. Zaldu-

ak 54 segundo gehiago behar izan ditu (20:53). Jexux Mari Mujikak osatu zuen podiuma (21:14). Mieltxo Mindegia zubietarra laugarren izan zen (21:28), Aratz Mugertza bosgarren (23:17) eta Julen Kañamares seigarren (23:36).

Ez da Ruben Saralegik lehen mailara igotzea lortzen duen lehen



UTZITAKO ARGAZKIA

Ruben Saralegi, bigarren mailako txapelarekin.

aldia. 2013an ere lortu zuen igotzea, txapeldun izan ondotik. 2014an jautsi eta 2015ean berriz ere lehen mailara igotzen, ordukoan txapeldunorde izanik. 2016an, berriz ere maila galdu zuen eta beraz, oraingoan, lehen mailari eustea izanen du helburu.

Bertzalde, azaroaren 17an, ortziralean, 18:00-

etan, Nafarroako lehen mailako txapela erabakiko da Donezteben. Iker Vicente, Jon Rekondo, Mieltxo Mindegia, Ruben Saralegi eta Joxean Etxeberria ariko dira lehiatzen: lau kanaerdiko, lau 60 ontzako eta bi onbiko moztu beharko dituzte. Harri-jasotze erakusketa ere eskainiko du Aimar Irigoienek.


PILOTA → AZAROAREN 24AN BERAN

75 urte bete dituen Eztegarra frontoian abiatuko da eskuz binakako txapelketa

1942ko urriaren 12an inauguratu zuten eta garai hartako 90.000 pezeta kosta zen egitea

TTIPI-TTAPA | BERA

Oraindik ez da txapelketaren aurkezpen ofizialik egin eta hortaz, ezin jakin zer partida izanen den, baina aurtengo eskuz binakako txapelketa nagusiaren estreineko partida Berako Eztegarra pilotalekuan jokatu da azaroaren 24an. Izan ere, 75 urte bete dira Eztegarako pilotalekua inauguratu zenetik. Zehazki, 1942ko urriaren 12an izan zen ekitaldia. *El León navarro* bezala ezagun zen Irigoyen Berako erremontistak egin zuen ohorezko sakea eta lehen pilotak, fron-



UTZITAKO ARGAZKIA

Eztegara pilotalekua 1942an, ireki zuten urtean.

tisean jo ondotik, gibelko errebotearen hormaren gainetik pasatu omen zen. Lehen partida erremontean jokatu zuten herriko lau pilotarik: Irigoyen I eta IV.a, Elizalde eta Marich-en kontra. Ondotik, "bi frantziar, bi espainiarren kontra" aritu omen ziren.

Garai hartako 90.000 pezeta kosta zen frontoia egitea eta 12.000 metro kubiko lur mugitu behar izan zituzten. Inaugurazioaren bezperan, bizkar besta ospatu zuten Charlot-en (gaur egungo Euskalduna) afaria eginez: Jose Artieda, Apezaborda, Xixari, Alkaiagako Ba-

tista, Vicente Fagoaga, Andueza, Patxiku Reategi, Genaro Iturbide, Berasain, Bordaberri, Fernando Elgorriaga, Esteban Errandonea, Dionisio eta Jose Chantre (azken horiek kontratistak ziren). Ricardo Barojak lanean aritu zirenen izen-abizenak paper batean idatzi zituen

txukun-txukun, botila batean sartu zuen papera, eta erreboteko txokoko harri batean sartu zuten. 1942 urte hartan pilota partida bat jokatu omen zen base-ritarren (Egiluzea, Maletenea eta Premosa) eta herritarren artean (Campanero, Dorronso-ro eta Arrosko).

Orduz geroztik, hainbat pilota partidaren lekuko izan da Eztegarra. 1968an teilatua eman zitzaion; 2001ean moldaketa lanak egin ziren frontisean eta zolan eta iaz larrialdi-irteerak egokitzeke lanak hasi zituzten, aurtengo bestetan inauguratu direnak. Honela, bigarren solairua ere erabil daiteke orain segurtasun-arauak bete zeto 650 lagunentzako tokia du. Azaroaren 24ko partidarako sarrerak Agara prentsa-dendan salgai daude.

PILOTA → ERREMONTEAN

Ezkurra II.a eta Ion txapeldun Azpeitian

30-40 irabazi zieten finalean Etxeberria IV.a eta Endikari

TTIPI-TTAPA

Josetxo Ezkurra II.a doneztebarrak eta Ionek irabazi dute Azpeitiko erremonte txapel-

keta, merezimendu osoz. Azaroaren 3an Izarraitz pilotalekuan jokatuako finalean 30-40 irabazi zieten Etxeberria IV.a eta Endika Urrutia saldiastarrari. Josetxo Ezkurra izan da txapelketako eta finaleko pilotaririk onena.

Ezkurra gaztea gero eta hobekiago ari da eta

txapel horrek bere joko-maila baieztatu bertzerik ez du egiten. Txapelketa honetan jokatu dituen hiru partidatan bera izan da alde egin duena. Finalean ongi lagundu zion Ionek eta hasieratik agindu zuten. Bortz-sei tantuko alde hartu eta bukaera bitarte mantendu zuten. Bu-



ARGAZKIA: MAIALEN ANDRES

Ion eta Ezkurra II txapeldun, Etxeberria IV eta Endikarekin.

kaerako hamar tantuko alde izan zen partidako handiena.

Aitzinetik jokatu zen hirugarren posturako le-

hian, Xanti Uterga doneztebarrak eta Agirrezabalak 35-33 irabazi zieten Matxin III eta Aritz Zubiri goizuetarrari.

azaroak 16 - 30

Informazioa bidaltzeko: info@ttipi.eus edo 948 63 54 58

Solosaldiak



LEITZA | 2017.11.22

Zuhaitz mugarroren inguruan hitzaldia antolatu dute Leitza

Mugarro zaharren zaharbertitzea: teknika eta emaitzak jardunaldia antolatu dute Leitza azaroaren 21ean eta 22an. Tartean, Helen Read antzinako zuhaitzen elkarterko kideak hitzaldia eskainiko du.

Kantaldia



SARA | 2017.11.18

Ikastolaren 40. urteurrena dela eta kantaldia antolatu dute

40 urte ospatzeko nahiko motibo bade-lako, kantaldi berezia antolatu dute Olhain ikastolako gurasoek. Ikastolako gurasoak eta haurrak ariko dira kantari 17:00etan hasiko den saioan.

Azokak



GOIZUETA | 2017.11.25

Artisau, ganadu eta nekazaritza produktuen feria azaroaren 25ean

Azaro kulturalan bete-betean sartuak dira Goizueta aldean. Horren barrenean, azaroaren 25ean artisau, ganadu eta nekazaritza produktuen feria egingen dute. Egun osoko festa izanen da.

Erakusketak

ELIZONDO

'Emakumea Hegoaldean'

Azaroaren 13tik 24ra

Arizkunenean.

Komete sarea

Azaroaren 13tik 30era

Arizkunenean. 17:00-20:00.

IGANTZI

'Artea bizitzeko eta amets egiteko' margo eta eskulturak

Abenduaren 10era arte

Irisarriko Jauregian.

Solosaldiak

ARANTZA

'Anai-arreben arteko kasailak eta konplizitatea' eskolan

Azaroaren 16an 16:30ean.

DONEZTEBE

Haurrei nola solastatu hizpideAzaroaren 16an *cómo hablar a los niños*, 14:30ean eskolan.**Familia zaintzailearen lana eta estresa hizpide**

Azaroaren 16an 16:30ean

Mankomunitatearen egoitzan.

LEITZA

Kontsumoa hizpide

Azaroaren 16an udaletxean, 18:00etan.

Helen Read eta Leitza mugarratze lantaldea hizketan

Azaroaren 22an 19:00etan zineman.

BERA

Emakumeenganako bortizkeriaren inguruko protokoloaz mahai-ingurua

Azaroaren 24an 19:00etan Beralandetan.

Tailerrak

ELIZONDO

Zaintzailearen tailerra

Azaroaren 16an eta 23an

Osasun Zentroan, 12:00etatik 13:30era. Izen-ematea Elizondoko Osasun Zentroan edo 948 581832ra deituta.

Estresa eta antsietatea gainditzeko

Azaroaren 15, 22 eta 29an

Osasun Zentroan, 10:30etik 13:00etara. Izen-ematea Elizondoko Osasun Zentroan edo 948 581832ra deituta.

Joko patologikoaren prebentzioa eta pantailen erabilera egokiari buruz

Azaroaren 14, 21 eta 28an

Arizkunenean, 17:00etan. 12-18 urteko gaztetxoek guraso-entzat. Izena: 665 802 545 edo asociacionaralarsvd@gmail.com

GOIZUETA

Sukaldaritza ikastaroa

Azaroaren 15, 22 eta 29an

18:00etatik 20:00etara Umore Ona Elkartearen.

Antzerkiak

BERA

XIX. Kafe-antzerki zikloaAzaroaren 17an *Espuela nahi?* antzezlan 22:00etan Bidaxka ostatuan.Azaroaren 18 eta 19an *La buena, la mala, la ergela y la madre que os parió* Kultur Etxean (19:30).

GOIZUETA


Azaro kulturalaren baitanAzaroaren 17an *Nola esango dizut, bada?* 18:30ean udaletxekeo ganbaran.

PROPOSAMENA

ESKUALDEA

Emakumeenganako Indarkeriaren Kontrako Nazioarteko Eguna

Ez da edozein egun azaroaren 25a, Emakumeenganako Indarkeriaren Kontrako Nazioarteko Eguna da, eta hori gogoan, hainbat ekitaldi antolatu dituzte aurten ere eskualdean: hitzaldiak, mahai-inguruak, antzerkiak, elkarretaratzeak, ipuin-kontaketa-saioak, dokumentalak... Ikastetxe gehienetan ere modu berezian landuko dute gaia.



ARANO

'Zazpiak oihal batetik'

Azaroaren 19an Maixuenean kontaketa musikatua (12:00).

ARESO

'Garaiz ikasi'

Azaroaren 23an 17:00etan elkartean.

Zinema

DONEZTEBE

'Descendientes 2' filma

Azaroaren 19an 16:30ean.

ETXALAR

'Desatrapadas' dokumentala

Azaroaren 24an 19:00etan Kultur Etxean.

ARANTZA

'Desatrapadas' dokumentala

Azaroaren 24an 19:30ean eskolan

IGANTZI

'Desatrapadas' dokumentala

Azaroaren 25ean 20:30ean Herriko Etxean.

LESAKA

'Desatrapadas' dokumentala

Azaroaren 26an 18:00etan Harriondoa Kultur Etxean.

Kontzertuak

SARA

Ikastolaren 40. urteurrenaren harira kantaldia

Azaroaren 18an 17:00etan.

ELIZONDO

Udal Musika Eskolako ikasleak

Azaroaren 21ean 17:00etan kalejira zahar-etxetik plazara. Euriarekin Musika Eskolan.

Ahots kontzertua elizan

Azaroaren 26an Elizondoko Abesbatzaren 75. urteurrenaren harira.

LESAKA

Santa Zezilia Eguneko saioak

Azaroaren 24an 20:00etan eta **25ean** 18:00etan.

Nire aukera



Aide TXOKARRO

Narbarteko gaztea

«Bizitza zoriontasuna bilatzen pasatzeak ez du zentzurik»

Momentua bizitzen saiatzen den eta kapitalismoa eta bere baitako zapalkuntza guztiak erortzen ikustea amets duen hogeita hiru urteko gaztea da Aide. Gaztea izanagatik, asko borrokatu du bizitzan, eta horrek eragin handia izan du bere jarreran: «2015ean Hodgkinen linfoma bat diagnostikatu zidaten eta geroztik gauzei bertzelako ikuspuntuarekin begiratzen diet». Momentu txarrak bizi izanagatik, «ekainak 26 hartako hitzak, banan banan gogoan ditudanak, medulako trasplantea egin ondotiko aislamendu luzea...», onak ere gelditu zaizkiola kontatu digu: «abuztuan, kimioterapia sesioen erdian, Narbarteko gazte batzuekin Aneto mendia igo nuen, ez nuen uste goititzeko moduan izanen nintzenik eta arront oroitzen polita dut». Musika eta bertsoaren bitartez, baita eskalada, korrika, eskia, bizikleta eta «mendiarekin lotzen den edozein kirol». Asteburuko planik hobereana «Pirinioetara joan, eguzkia atera aurretik abiatu, mendiren bat igo, bertan bazkaldu, inguruko herriren batean besta egin, eta denbora aprobetxatu izanaren sentazioa gelditzea» da berarentzat. Kirola, horixe izan da, bertzeak bertze, «gaixotasunari aurre egiteko lagungarri» izan zaiona, «ongi sentitzen, deskonektatzen eta motibazioa mantentzen» lagundu baitio. Baina zalantzarik gabe, horri guztiari «familiarren, eta batez ere gurasoen, bikotekidearen eta lagunaren» laguntza gailendu zaie. Horiek izan dira «beti hor egon diren sostenguak, eta ni ere beti hor egonen naiz beraiantzat». Familia eta lagunak «zaindu beharrekoak» direla azpimarratu nahi izan du, «ez daudenean faltan botatzea baino garrantzitsuagoa da daudenean denbora eskaini eta elkarrekin disfutatzeko. Ohitura handiegirik ez izanagatik gehiagotan erran behariko genieke maite ditugula». Bere zaletasunari erantzunez, eta egindako borroka gogorren garaipenaren ikur gisa, urriaren 22an Narbarteko gazteek eta familiarrek berarekiko harrotasuna eta laguntasuna islatu nahi izan zioten. Aizkorrira goititu eta txapeldunaren txapela jantzi eta horrenbertze maite duen «inguruko lasaitasunaz» gozatzeko parada izan zuen.

«Laguntzeko prest egotea bezain inportantea da laguntza hori jasotzeko eta lagundua izaten uzteko prest egotea».

ARANTZA

Oibarko Aritza abesbatza

Azaroaren 25ean eskolako gimnasioan, 19:30ean.

Ospakizunak

LEITZA

Iparraldeko ikastolen aldeko pesta

Azaroaren 26an.

Bertsoak

LESAKA

Bertso saioa zahar etxean

Azaroaren 26an 17:00etan.

ELIZONDO

'Erradikalak gara', bertsoa eta bakarriketa

Azaroaren 26an 19:00etan Arizkunenean.

LEITZA

Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Eguna dela eta

Azaroaren 24an 22:00etan zineman: Uxue Alberdi eta Maialen Lujanbio.

Azokak

SARA

Ekizlearen azoka

Larunbatetan 08:00etatik 13:00etara frontoian.

Saint Joseph eskolako Eguberrietako merkatua

Azaroaren 25ean 09:00etatik aitzinera.

DONEZTEBE

Feriak

Azaroaren 17an.

BERA

Bigarren eskuko merkatu ttikia

Azaroaren 19an 09:00etatik 14:00etara Altzateko frontoian.

LESAKA

Lesakako feriak

Azaroaren 22an eta 23an.

GOIZUETA

Feri eguna

Azaroaren 25ean.

ETXEBIZITZAK**salgai**

ELIZONDO. Akullegi ka - rrikan 2 logelako pisua salgai. Prezioa: 55.000 euro. ☎646 774117.

ITUREN. Hainbat neurritako apartamentuak hagitx prezio interesgarrian salgai. ☎948 451337 / 667 275013.

ANZABAL
INMOBILIARIA**BAZTAN, BIDASOA, ULTZAMA eta IPARRALDEAN**

- Pisuak, apartamentuak, partzelak, baserriak, bordak, lokal komertzialak eta nabeak salgai.

IPARRALDE eta BIDASOA alderdian

- Eskaintzagarriak baserriak, bordak eta lurrak behar ditugu.

URDAZUBI

- Etxe berri bat salgai, mobleztatua. 2000 m²ko lursailarekin.

DONEZTEBE

- **Aukera:** 102 m²ko pisua salgai. Egoera oso onean dago. 3 logela, jangela, egongela, 2 komun, sukalde mobleztatua eta 17 m²ko trastelekua.

Tel. 948 580 804

anzabal@anzabal.com

ARANTZA. Herrigunean, etxea salgai, bi baratzeekin. ☎0033641 814786.



LEITZA. 98m²ko pisua salgai: 3 logela, egongela, sukalde hornitua, komuna berritua, despen-tsa-garbigailua, balkoi batekin. Egurrezko ate eta PVCko leiho berriak. 23m²ko garajea + ganbara komunitarioa. 145.000 euro. ☎618 037964.

MERKATU TTIKIA**948 63 54 58**

info@ttipi.eus edo erran.eus

SAIL HONETAN IRAGARKIA JARTZEKO 10€ ORDAINDU BEHAR DA
ARGAZKIAREKIN JARRI NAHI IZANEZ GERO 12€
IRAGARKI BAKOITZEKO **GEHIENEZ 25 HITZ** ONARTUKO DIRA

TTIPI-TTAPA aldizkariaren 2 zenbakitan eta
INTERNETen hilabete batez agertuko da

Ordainketak Rural Kutxako ES86 3008 0080 5607 0330 4329 kontuan

TTIPI-TTAPAK ez du bere gain hartzen argitaratuak diren iragarkien ondorioz
sortzen ahal diren operazioen erantzukizunik

ETXEBIZITZAK
errentan emateko

Dantxarinetik hurbil, 85 m²ko apartamentua errentan emateko. 2 logela, sukalde hornitua, 2 balkoi eta trastelekua. Toki lasaia. ☎690 388134.

BERA. Itzea karrikan apartamentua errentan emateko. ☎609 973306.

ETXEBIZITZAK
errentan hartzeko

BERA. Familia bat pisu bila dabil errentan hartzeko. Urte baterako. ☎664 366447.

MALERREKA edo BAZTANen granja bat edo baserri bat lurrarekin errentan hartu nahi dute. ☎658 015080.

LANA
eskaintzak

Industria langilea behar da **Aranorako**. Beharrez-

koak: Goi Mailako zikloa, autonomia, lan gogorra egiteko ahalezia, epe luzerako inplikazioa. Baloratzeko: mekanika, elektrizitate eta soldadura ezagutzak. Kontratu mugagabea. Lana: produktzioak kudeatu, martxan jarri eta kontrolatu. Eskariak bidali: *fabricacion@blue agro.com*.

Fabrika batean aritzeko langilea behar da. Bidali curriculuma helbide honetara: 8. Posta Kutxa, 31700 Elizondo.

Bi lagun behar dira **Doneztebe** eta **Elizondoko fruta-denda** batean lan egiteko. Bical curriculum: *kifrut@gmail.com*.

LEITZA. Piano irakaslea behar dute, astean behin etxera etorriko dena. ☎608 776899.

ELIZONDO. Bidegain arraindegian berehalan hasteko prest da-

goen langilea behar dute. Lan finkoa, asteartetik larunbatera goizez aritzeko. Ezinbertzekoa da gida-baimena izatea. Interesatuak deitu, dendara joan edo curriculuma bidali: *info@pescadosbi degain.com*. ☎606 585163/ 948 580496.

LANA
eskariak

Baztan eta inguruan lan bila. Zerbitzari, saltzaile eta teleoperadore izana. Informatika aplikazioekin eguneratua. Esperientzia haundia bezeroentzako arretan. Pertsona ardurtsua, aktiboa eta gaitasun komunikatiboekin. ☎630 452189.

BAZTAN eta INGURUAN. Garbiketan aritzeko eta adinekoak eta haurrak zaintzeko lan bila. Esperientzia zaintzan eta garbiketan. ☎644 778212.

BAZTAN eta INGURUAN gizonetza lan bila. Mendiko lanetan, sorotan eta abeltzaintzan esperientziaduna. Adinekoak zaintzeko ere prest. ☎631 837171.

Mutil batek **edozertan lan** eginen luke, baita baserrian eta aziendekin ere. ☎631 876901.

ZERBITZUAK
zurgindegiak**ARANTZA**
Zurgindegi.....

- Klase guzietako zurgin lanak
- Eskatu aurrekontuak konpromisorik gabe

Joxe Miquel Errandonea
Tel: 948 634 068 - 647 810 144
Gorritibatua - ARANTZA

ANIMALIAK
salgai

URDAZUBI. Bi hilabeteko labrador txakurkumeak salgai. Txertatuak eta desparasitatuak. ☎948 599121 / 609 878003.



Border Collie zakurkumeak salgai. Arrazakoak, ama eta aita artzain zaurunak. ☎639 708414.

**BASERRIA**

DATU ITURRIA: **NAFARROAKO GOBERNUA**
(urriaren 27tik azaroaren 3ra bitarteko prezioak)

ZERRIKIA

Zerrikumea
(19 kilo): 42 €

Zerri gizena
1,075€ kiloak.

Zerramak:
0,560 € Kg/bizirik.

BEHIKIA

Aretze gizenak:
Idixkoak: €/k Kanal
Extra 4,35

1.koa 4,13
2.koa 3,93

Urruxak: €/k Kanal
Extra 4,37
1.koa 4,23
2.koa 3,83

Oharra: Prezioak 180-220 Kg. kanalean pisatzen duten aretzeenak dira.

Aretze tikiak
(15 egun ingurukoak):

Aretze mestizoak:
urruxak 160,00
idixkoak 210,00

Aretze nabarrak:
urruxak 140,00
idixkoak 185,00

Zaldikoak: €/k
Sortuberriak: 3,29/3,39
Zaldi-behorrak: 1,93/2,10

Bildotsak: €/k
6-8 kilokoak: 8,20/8,80
8-10 kilokoak: 6,40/7,10

Euskal artzain zakurkume iletsuak salgai. ☎675 705238 / 675 705243.



20 ardi muturgorri salgai, ernari, azaroan umartzeko. ☎697 440590.

ANIMALIAK
galdu-aurkituak

Katua galdu da. Norbait aurkitu edo ikusten badu, eskertuko genuke deitzea: ☎647 617221.



DENETARIK
salerosketak

ORONOZ. Egurra xehetua salgai. Pagoa eta haritza. Etxera eramanen da. ☎676 242520.



Sukalde industrialak salgai, erabili gabea. Gasezkoa, sauter etxekoa. Labearren neurria: 45 x 85. ☎659 849570.



LG telebista salgai: 37 pulgada, mandoa eta USB, SLOT, HDMI, RGB IN, AV1-AV2, audio eta bideo irteerekin. Sony



AVIA www.doneztebe.com

E.S. SANTESTEBAN

Leitzako errepidea, 49 | DONEZTEBE | T. 948 451 679

KOTXE GARBITEGI BERRIA! **FURGONETA GARBITEGI BERRIA!**

ShineTecs

"KONPONTZE EFEKTUA" duen pintura babeslearekin

> "Acryllonic" formula patentatua. Argizaria baino hobea.
> Kapa babeslea indartzen du garbiketako bakoitzean
> Distirak denbora gehiago irauten duela bermatzen du

2,60m bitarteko furgoneta edo kotxea garbitu gurean!

BERAKO TAILERRAK

CITROEN DIESELA

Etorri AUKERAKO KOTXEAK ikustera!

N-121-A errepidea 63 km BERA
T. 948 631 157 - 659 092 472


KATEA BIKE

2. eskuko bizikletak

Kanttonberri, 1 | BERA
T. 948 631 218
kateabera@telefonica.net

definizio altuko **multimedia aparatua** ere salgai: DVD, disko gogorra eta HDMI, AV1-AV2, audio eta bideo irteerekin. Disko gogorrean eta DVD-an grabatzeko aukera. 300 euro. ☎610 385867.

2,59 metro zabal eta 2,26 metroko altuera. Egoera hagitaz onean dago. ☎686 836380 / 606 194404.



Bigarren eskuko **trikitrixaren funda** erosiko nuke. ☎647 810147.

Garajeko ate baskulagarria salgai. Neurriak:

ARANTZA. Taxi plaza salgai. ☎617 296458.

GANIX Tailerra

948 63 06 69
Zalain Pol., 11 - BERA
EUROMASTER zegoen lekuan

Altzairuzko sei fregadera salgai, 1,73 metro x 34 zentimetroko neurriarekin. Forma borobila. ☎948 585036.

744 484 361
ttipi-ttapa

KULTURKARI
DISEINU GRAFIKOA | PUBLIZITATEA
T. 948 635 458 | www.kulturkari.com

LOGOTIPOAK | KARTELAK | ARGITALPENAK | EGUTEGIAK | BOLETOAK
OROITGARRIAK | TXARTELAK | ORRI MUTUAK | POLTSAK
ESTILO-GIDALIBURUAK | LONAK | BINILOAK...

IREKITA
Herrian erosi. *euskara* erosi

Eman **KOLOREA** mundu grisari!


PLAZAN BAZAN

MARIPURTZIL

PELOZIRI



ZEIN DA ZEIN



Erretratu hauetan ikusten dituzun lagun hauek denak ikaskideak izan ziren txikitan. Begira izezaiozu orain dela 25 urte egindako argazkiari. Badakizu zein den zein??



- 1 _____
- 2 _____
- 3 _____
- 4 _____
- 5 _____
- 6 _____
- 7 _____
- 8 _____
- 9 _____
- 10 _____
- 11 _____
- 12 _____
- 13 _____
- 14 _____
- 15 _____
- 16 _____

ITZALA

Zein da txori-izugarri honen itzal zuzena?



MOZORRO FESTA


Margotu irudiok zure gustura.

**INTERNETEN
ERE BAI !**

<http://plazanbazan.eus/>



Kontsultatu soluzioak
plazanbazan.eus/kioskoa/soluzioak




urtebetetzeak

Argazki soila: 5€; bikoitza: 10€

Ordaintzeko: 1) Bulegoan, dirutan; 2) Hegoaldetik postaz, 0,50€ko 10 edo 20 seilu. 3) Iparraldetik postaz, 5 edo 10 €ko txekoa; 4) erran.eus bitartez



ONATZ ARIZTEGI Goñi donamariar-rak urtea beteko du azaroaren 25ean. Aunitz urtez familia guztia- ren partetik eta muxu haundi bat.



Urriaren 16an Igantziko **GALDER BEREAU** Txoperenak urte bat bete zuen. Zorionak eta muxu haundi bat etxeko guztion partetik.



Aunitz urtez Aurtizko **LEIANE ALTZURI MINDEGIARI**. 6 muxu haundi familia guztiaren partetik eta berexiki, atta, ama eta Naikari ahizporen partetik. Ongi pasa eguna potxolaaaaa!!!



Sunbillako **JONE BERTIZ ARIZTEGI**: zorionak azaroan 1ean 4 urte bete dituzulako!!! Muxu handi eta potolo bat Sunbillako eta Etxalarko familien partetik, baina berexiki. Ekiñe ahizpa eta Joanes, Urki eta Haritz lehengusuen partetik!!!




Zorionak urriaren 31n urteak bete- tzen dituzten doneztebarre!! Nahizta titkitzen hasiak diren / eguzkiaren indarrak / hego haizeak goxatzen ditu / urriko ilunabarrak / urriko azken eguna berriz / gure afari edarrak / gure urteak ospatzen ere / munduan gara bakarrak / gu garelako hallo- ween gaba / argitzen duten izarrak.



NAHIA GOMEZ beratarrak 5 urte beteko ditu azaroaren 18an. Aunitz urtez eta musu aunitz familia guztiaren partetik!



ALAITZ IBARRA BEREAU arantzarrak 7 urte beteko ditu azaroaren 17an. Aunitz urtez eta muxu haundi haundi bat familia guztiaren partetik. Berendu goxoa prestatu!



ARATZ BARANDARAIN ARANALDEK 6 urte beteko ditu azaroaren 23an. Zorionak gure artistari! Segi eraikitzen, pieza gehiago erostea gure kontu!



Leitzako **ALAI MARTINIKORENA ARIZTIMUÑO** azaroaren 20an 6 urte beteko ditu. Sei muxu haundi familia guztiaren partetik eta berexiki bere ahizpa Iraia eta lehengusuen partetik. Ongi pasa eguna eta berendu goxoa prestatu!



IZARGI MARIEZKURRENAK urtea beteko du azaroaren 19an. Super zorionak Lantz eta Leitzeko lehengusuen partetik, pesta polite prestatu!! Mua!!!



Lesakako **AINHOAK** 4 urte beteko ditu azaroaren 15ean. Aunitz urtez sorgintxo! Berendu gozo-gozoa prestatu.



Igantziko **HAIZEA ARANGUREN IRIGOIENK** urtea beteko du azaroaren 17an. Zorionak eta muxuak Igantziko familia eta berexiki Jonen partetik!

ilun&sun

23.00 - 01.00

HUNNAI

01.00 - 02.45

MUR

02.45 - 04.30

MUSIC

04.30 - Itxi arte

BAUM

PIEK

Azaroak 18
Sarrera + konts. 10 €



hemen agertu nahi duzu?

egin zure erosketa **erran.eus** en

argazki soila
5
EURO

aldizkarian interneten

argazki bikoitza
10
EURO

TEEH BANDAREN BILA GABILTZA
AGIAN ERABILGAILTZAK, BAINA BERRESKURAGARRIAK LAGUNDU HARRAPATZEN

Plan de Residuos de Navarra 2017-2027 Nafarroako Hondakinen Plana

Birziklatzeko ere izango da aurten **Black Friday** eguna, ez soilik erosteko!!

Tresna Elektriko eta Elektronikoen Hondakinen (TEEH) I. Bilketa Lehiaketa

AZAROAREN 24TIK ABENDUAREN TERA, HURBILEN DUZUN DENDAN

Parte hartu kanpainari atxikitako eta TEEHren kudeaketari lotutako Nafarroako merkataritza-establezimenduetan eta **LAGUNDU EZAZU HARRAPATZEN**, etxetresna elektriko txiki eta handiak, kontsumo apalekoak, informatika- eta telekomunikazio-ekipoak, argiztapenekoak, argiztapen-tresnak, tresna elektrikoak... Oinarriak hemen ikusgai: <https://gan-nik.es/concurso-de-recogida-de-raee-2017/>

DENDAN TRUKATZEKO TXARTELAK IRABAZI AHALKO DITUZU, ETA INGURUMENA ZAIINTZEN LAGUNDUKO DUZU

Ekimena: Nafarroako Gobernua, Gobierno de Navarra, Nafarroako Informatika Kudeaketa S.A., Gesa Informatika de Navarra S.A., ECOLUM, ECOLEC FUNDACION, ecotic, Laguntzaileak: HONDAKINAK KUDEATZEKO MANKOMUNITATEAK, MANCOMUNIDADES DE RESIDUOS DE NAVARRA, fundación osasuna

AMBILAMP, European Recycling Platform, eco raee's, ecoasimelec, ecofimática

1. faseko azken etxe eta lokalak SALGAI!

ETXEBIZITZA BERRIAK DONEZTEBE

2 eta 3 gelako etxebizitzak terrazarekin

KOKAPENA MOURGUES IBILBIDEA

- ✓ **RURAL KUTXA**ren babes eta laguntzarekin
- ✓ Salmenta zuzena: **PROMOTOREAK GARA**
- ✓ **BABES OFIZIALEKO** etxebizitzaren baldintzekin %15eko desgrabazioa errenta aitortpenean

135.000€tik aurrera Informa zaitez

EZKAIN ERAIKUNTZAK Inzakardi kalea z/g | **DONEZTEBE**

629 951 170

Ttipi Txartela

arekin beti irabazten da!

DESKONTUAK, ZOZKETAK...
TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA
MUSUTRUK
-%80ko DESGRABAZIOA
ERRENTA AITORPENEAN
Eskatu zurea: 948 63 54 58

Informazio gehiago:
TTIPI-TTAPA
Koskontako bidea, 7 LESAKA
T 948 63 54 58 | F. 948 63 54 57
info@ttipi.eus | erran.eus

www.ttipitxartela.info

697

aleko irabazleak >



ZOZKETAK

Baztan Abentura Park - 2 tiket
Marta Ugarte Marin | OROÑOZ MUGAIRI
Zugarramurdiko lezeak - 2 sarrera
Patrizia Telletxea Zubieta | ZUBIETA
Donostiako aquariuma - 2 sarrera
Nuria Ubiria Maritorea | LESAKA
Eureka! Zientzia Museoa - 2 sarrera
Josune Ballarena Urroz | ELIZONDO
Buatxabal - Kamiseta bat
Kontxi Lezea Huitzi | ARESO
Arkupe - Lote bat
Antonio Sarratea Arozarena | URDAZUBI
Lanku - Liburu eta DVD bat
José Luis Eratsun Ariztegi | ITUREN

2 sarrera



LESAKA

www.lesakakoudalkiroldegia.com

2 sarrera



IRRISARRI LAND

www.irrisarriland.com

2 sarrera



DONOSTIAKU AQUARIUMA

www.aquariumss.com

EUREKA! ZIENTZIA MUSEOA

www.eurekamuseoa.es



2 sarrera - Heldu bat eta gazte bat

ONDDO TA PUNTO

www.onddotapunto.com



Kamiseta bat

ARKUPE

www.arkupegozotegia.com



Lote bat

MUSIKA



Etsaiak eroak
- Naufragoak

baga-biga
MUSIKA IDEIAK
www.baga-biga.eus

LAGUNTZAI LEAK



www.erein.eus



www.rhune.com